

Sekulorun  
Sekulotan

(nobela)



Patri Urkizu

KRISELU, DONOSTIA 1975

**Patri Urkizu**

**Donostia 2016. Autoedizioa**

# Sekulorun Sekulotan

## AITZIN—SOLASA

Ramon Saizarbitoria

**G**ure Herrian eskuizkribu gutigatik jeneralean eta nobela gutigatik partikularzki esan daiteke periodikoetatik bere argitarazioa eskatu denik, esku artean duzun «Sekulorun Sekulotan...» honengatik esan daitekeen bezala<sup>1</sup>. Hau bada meritu bat, egun literatura desprestijioaren aideetan dantzan dabilela kontuan hartzen bada.

Perugorriak Anaitasunako artikuluan dionez, nobela hau Lur-en zentsuratua izanen zen. Hau ez da egia. Lur-ekoek<sup>2</sup> ez dugu nobela honen zentsurarik egin; egin izan bagenu ez ginen gure artikulistak eskaintzen dizkigun argudioen astotik jatsiko<sup>3</sup>. Hala ere egia da artikuluan aditzera ematen zen

---

<sup>1</sup> Ikus: Perugorria: Etxe barreneko zensura. *Anaitasuna* 1973, irailak 3.

<sup>2</sup> Eta berdin Kriselun argitaratzen jarraituko dugunok.

<sup>3</sup> Guk ez dugu deuseztatzen zensura baten egokitasuna, hori baita Perugorriak egotzi nahi digun bekatua. Baina ez gara zentsuraren alde zensura «baten» alde baizik. Beraz, ideologiak alde batera utzirik, orduan konpresio mailako zentsurari buruz aritu ginen: Bidezkoa ahal da irakurle gehienak ulertuko ez duten zerbait argitaratzea? Gure herriko panorama editoriala harturik, publikazio bakoitzak eskatzen duen edo eskatu behar luken errentabilitate (sozial) marjinari behatuz ezetz esanen nuke. Ez gure kontextoan. Orain, ez hau errelatiboa da, pertsona batek edo deusere erreprezentatzen ez duen talde batek esaten duen bitartean. Gauzak argitaratzaile aldetik ikusita —ezin bestean, Bai edo Ez esateko erresponsabilitatea hartzen dugunon aldetik— ezin jolas dezakegu, maizegi egiten den eta egiten dugun bezala, hitz bakar bat aditzera ematen dugunean eta ematen ez dugunean hartzen

## Patri Urkizu

bezala, beldur ginela eta garela irakurleen sektore zabal batek ez ote duen nobela ulertzeko, ulertzeko ez da hitza, onhartzeko hobe, prolema gehiegi izanen eta okerrago litzatekeena, ez ote zaion Urkizuk darabilen estiloa adarjotze hutsa irudituko. Honengatik egilea bera zen nobela hau argitaratzeko erreserba gehien zuena eta ez zuen eginen, behar bada, neronek egitera bultza ez banu.

Ikusten denez, eta honetara noa, komarik eta punturik gabeko nobela hau, Joyce-ren kutsu bat eta halako Sollers—en eragin bat duen obra honek badu interes tekniko bat behintzat, literaturan interesaturik dagoen publikoarentzat.

Baina zer da komarik eta punturik gabeko nobela hau, zein da egilearen estiloa eta zergatik erabiltzen du, zein da bere esan-nahia, esan-nahirik baldin badu? Galdera hauei erantzuteko, azken urteetako Europar literaturaren barnean gehien eragin duten korronteei buruz hitz batzuk esatea komenigarri iruditzen zait.

«Nobela indibiduen diskurtso etengabea, deituko diogu» dio Philippe Sollers-ek, «H» nobelarekin eskribitze eta espresatze bide berri bat ideki zuen eskritoreak<sup>4</sup>. «H»-k ez du ez komarik ez punturik eta ezta maiuskularik ere. Sollers—ek bere nobela «H» titulatzean ez zuen garai batetan euskal eskritoreek progresista eta tradizionalistetan zatitu zituen zorioneko letraren sinbolismoaz jabeturik egiten. Ezin ukatu hala ere beste sinbolismorik ezin ukan dezakeenik eta Sollers berak gogorarazten digu bonbak aparte, H hidrogenoaren sinboloa dela. H-ren orriak zabaltzerakoan, txokantea egiten da ez punturik, ez komarik, ez maiuskularik ez izateak lerroei ematen dien uniformetasuna. Baina puntuazioarena edo narrazioak puntuaziorik ez izatea bada sinbolismo bat baino zerbait gehiago. Sollers-ek egindako esperientzia narratiboak beste

---

dugun erresponsabilitatearekin. Are gutiago lan editorial probetxugarri bat izan behar lukeena egiteko destinatzen ditugun medioak, minoria baten zerbitzuan enplegatzea, urtean 60en bat liburu argitaratzen diren kontestu batetan. Dena den lan batek komarik ez edukitzea ez da aski arrazion guretzat lan bat argitaratzeko, alderantziz memento konkretu berezi batetan eskritoreari komak bere lekuan jarraraztea editorialetan erresponsabilitatea betetzea izan daitekela iruditzen zaigu.

<sup>4</sup> Philippe Sellers: *Le Roman et l'expérience des limites*. Tel Quel, 25g.o. Paris 1973.

## Sekulorun Sekulotan

puntuazio bat (signoz markatu ezin dena) esijitzen zion. Berak dion bezala beste ritmo batetaz tratatzen delarik beste era batetara bilatu behar du ritmoa irakurleak ere: «Bere ritmoa probatu behar du beraz: dikzioak, tinbreak, azentoak, puntuazio latentea, zurrunbilo, uhain, deiak»<sup>5</sup>. Barren ritmo bat darama narrazioak, horrela esan ahal badaiteke, puntuatze seinu konbenzionalak bortxatu besterik ezin dezaketen ritmoa. Puntu eta komen asuntoa —puntu eta koma eza— ez da beraz egilearen arbitrariotasun bat narrazioak eskatzen duen xerbait baizik. Eta interesantea da hau seinalatzea teknika komen arazoa maila anekdotiko batetan gera ez dadin (badakizue rimarik gabeko poesiari edo modelorik gabeko pinturari buruzko katxondeoa).

Baina zergatik edo zertarako narratzeko era berri bat? Zenbaterainoko garrantzia du diskurtsoaren formak, estiloak eta teknikak nobelagintzan? Zein da formaren eta mamiaren arteko harremana edo lotura nobelagintzan?

Badirudi gure gaztaroa bete zuten nobelisten estiloa desagokia dela egun murgildurik gauden prolematika edo errealitatearen berri emateko. T. E. Lawrence, Malraux, Bernanos, Sartre eta Camus batzuei gizonaren eta munduaren arteko dibortzioa deskribitu edo espresatu nahiak eman zien, zuten edo/eta duten handitasuna<sup>6</sup>. Haien diskurtso filosofikoak puntu eta komak eskatzen zituen bezala filosofia definitu bat barren bizitza bat zuteken pertsonaia mamitu batzuen beharrea aurkitzen zen haien nobelagintzaren desarroiloa. Azken finean «historia» bat asmatu beharrea ikusten ziren aipatu den dibortzioa espresatu ahal izateko.

Baina azken finean «giza kondizioaren literatura honek ez du ez errebelia bat, ez metafisika bat, ezta abentura bat ere erakarri: Jainkoaren

---

<sup>5</sup> Philippe Sollers. «D»-ren kontra-azalean. Aux éditions du Seuil. Collection Tel Quel. Paris 1973.

<sup>6</sup> R. M. Albères: *Panorama de las literaturas europeas (1900-1970)*. Ed. Al-borak. Madrid 1972.

## Patri Urkizu

ondoren Nietzsche hil da»<sup>7</sup>. Bizitzaren sentidu berriak edo bizitzari hartzen edo ematen zaion sentidu berriak ez du «nobelista haundientzat» lekuri utziko (entendi mesedez komillen sentidua). Literatura ez da jadanik polemika, gogoeta, errebeldia edo desesperantza baten espresioa izanen. Literatura, esan denez, ez dago hitz haundietarako. Gizona indeszifrailea, ulertezina kontsideratzen duenez ez du interes haundiagoko gauzarik aurkitzen deszifratzeko edo entenditzeko egiten diren ahalegin guzien fraskoa erakustea baino. Eskritorea «fenomenologiaren» izenean edo «estrukturalismoaren» izenean eginahal huts horiek deskribitzera mugatzen da, deskribitu ezina den deskripzioa deskribitze nahiaren informe bat egitera<sup>8</sup>.

«Arrotza» mesanotxe gaintik aldendu berria genuelarik N. Sarraute eta A. Robbe Grillet azaldu zitzaizkigun. Hauentzat ez du sentidurik errealitateari sentidurik edo esplikaziorik bilatzeak. Irakurlea organikoki bizitzen den esperientziaren mailan jartzen dute, mundua dominatu gabe mundu beraren zati bat, prolongazio bat besterik ez den kontzientziaren barnean. 60gn inguruko gertakizun politiko ekonomikoak (edo gertakizun ezak) giro berri hori ematen dio nobelagintzari eta esistentzia horretan murgiltzen ditu nobelagileak.

Nobelagintzak forma berri bat hartzen du beraz. Ez du deusere kontatzekorik —horretarako kontzientziak gertakizunetik kanpo behar luke, gertakizunak domeinatuz— eta kontzientzia fenomenologikoak ez du domeinatzen, parte hartzen baizik errealitatearen prolongazio bat besterik ez denez. «Prolema haundiak» mespretxatu egiten dira, ideia primarioak edo lehen printzipioak bezala eta hauekin literatura trajikoa. Kontatzen den esperientzia estrukturan bere sekretuak gordetzen dituen domeinu itxi bat bihurtzen da. M. Merlau Ponty-k dionez fenomenologia «gure esperientzia den bezala, haren genesis psikologikoaren edo esplikazio kausalen ardurapenik gabe zuzenki

---

<sup>7</sup> R. M. Albères: op. cit.: 368. o.

<sup>8</sup> R. M. Albères: op. cit.: 368 o.

## Sekulorun Sekulotan

deskribitzeko esperientzia da»<sup>9</sup> eta A. Robbe Grillet «nouveau roman»en errepresentatzailerik ezagunenak: «signifikazio psikolojiko, lojiko, sozial edo funtzionalez osaturiko unibertso honen ordeaz, mundu inmediateago eta solido bat jaso beharko litzake»<sup>10</sup>. «Nobelagintzak, sentidu honetan harturik, interpretaturik ez du imajina signifikatiborik eskuratzen, informatiboak baizik»<sup>11</sup>.

Hau da «Antinobela» deitu zaion mugimenduaren printzipioa, errealitate bakar bezala —N. Sarraut-en hitzetan— «gertakizun tipi autentikoa, detaile egiazkoa» besterik ez onartzea.

Plano bakar batetan, perspektibarik gabe, hemendik, memento honetatik erten gabe, detaileak bata bestearen ondoren ordenatzen dira. Ez da gauzen gertaeren eta sentimenduen artean jerarkiarik egiten, horrela harreman materialak botere esajeratu bat irabazten dute. Mundua ez da —dio Robbe Grillet-ek—, ez intelijentea ez absurdoa, hor dago, besterik ez. «Gure iritziz, arimaz eta azken finez bete ditzaketan adjetiboak medio direlarik ere, gauzak hor daude; heien axala, garbia eta lisoa, ikutu gabea dago, baina brilo eta transparentzia nabarrik (ekibokorik) gabe.

«Gertakizun tipi kotidianoa» kaptatzeko, heltzeko, ez da diskurtso filosofikoaren beharrik, egia esateko hobe da zine kamara bat. Narratibak —imitatu gabe— hizkuntz zinematografikotik hain urrun ez dabilen estilo bat erabiliko du. Nobela bizitzaren gauzen detaile objetibo eta tipien flash gataiatu bat izanen da. Flash horiek ezin dute noski kontzientziarik erdietsi. Maitasun «historia» batetan ez dute lekurik, esate baterako maitaleen sentimenduak, izter bat igurtzitzen duen eskuaren bitartez espresatzen eta entenditzen ez badira behintzat. Nolanahi ere, izterrak, eskuak, eskumuturreko erlojuak, erlojuari begira diharduen maitalearen kontzientziak baino presentzia eta garrantzia

---

<sup>9</sup> M. Merlau-Ponty: *Phénoménologie de la perception. Avant-propos.*: 1. o. Paris 1945.

<sup>10</sup> A. Robbe Grillet: *Une voie pour le roman futur.* N.R.F. Paris 1956.

<sup>11</sup> J. Bloch-Michel: *Le présent de l'indicatif.* Gallimard, 92. o. Paris 1964.

## Patri Urkizu

gehiago dute narrazioan. Prozesu psikologikoak kanpotik eta urrutitik, oso urrutitik —edo barrendik, oso barrendik, berdin litzake— ikusten dira. Eta hau oso ondo espresatzen du Fischer-ek Robbe Grillet-en «Le Voyeur»-ez mintzo denean <sup>12</sup>[. «Gizonak objeto hutsak dira objetoen artean, eraiketa batek ez du erloju baten salmentak baino garrantzi gehiagorik, ekintza kriminal batek antxeta baten oihuak baino, gertakizuna ez da amets harrigarri bat besterik edo testimonio faltso bat, perspektibarik gabeko errealitatea, neurririk eta balorerik gabekoa».

Honela nobela klasikoaren formula hutsak, konbenzionalismoak, montaje prefabrikatuak deuseztatu nahiean, detaile tipi eta hutsez jasotako instantaneaz osaturik datorkigu nobela berria. «Pseudogertakizunak deuseztu nahiean gertakizun oro ukatzen du. Horrela beraz "egiazko errealitatea"» — ikusten dena— jaso edo kaptatu nahi lukeen nobelagintza, konprenitu eta interpretatu nahi ez hortan edo horregatik (eskribitu besterik ez) bidertzean geratzen dena (detaile tipien adarretan) errealitatea konprenitu dena baita bakarrik (Hegel) edo mundua errealitate bezala konprenitua (Marx) eta ez gizonen begiak ikusten duten bezala.

Baina hau beste asunto bat da<sup>13</sup>. Hemen benetan interesatzen zaiguna, zera da, munduko gertakizunak eta mundua bera interpretatzeko forma berezi batek —edo konprenitu nahi izateak soilki edo konprenitze nahi hori inposibletzat abandonatzeak— hizkuntza narratibo edo berezi bat esijitzen duela. Nobela berri bat eta kasu honetan antinobela bat. Atenporal, denborarik gabeko analisi sublimeen ondoren, Faulkner-en transkripzio brutal zakar gogorren eta Butor eta Robbe Grillet-en laberinto jeinutsu super injeniosoen

---

<sup>12</sup> E. Fischer. *El artista y su época*. Ed. Fundamentos, 21. o. Madrid 1972.

<sup>13</sup> Ez da errealismo sozialistaren debozionario izan beharrik *Nouveau Roman*-en teoriaren barnean militatzen duten nobelistek erreazionarismo politiko batetan jaurtitzen direla estimatzeko. Kasu honetan beste inon baino argiago deritzait, maiz konfunditzen diren, progresismoaren eta modernismoaren arteko desberdintasuna.



## Sekulorun Sekulotan

ondoren, Nouveau Roman edo neokritika forma berri batek, eskritorearen egoera berri hori espresatu nahi luke: eskritorea ez da orain errealitate objetibo eta definigaitz baten aurrean jartzen, «Ni» eta errealitatearen nahaste ilun eta fenomenologikoa, nahaste bakungaitz, etenezin edo hezkaitza espresatu nahiean baizik<sup>14</sup>.

Eskritoreak ezin ahaz dezake beraz lehen aipatutako distantzi psikologikoa. Orain ere ez daude haren aurrean mundua izate, esistentzia, ea., munduaz egiten den imajina, errealitate hibridoa (xinitrea) eta nahasia besterik. Lehen alde batetik mundua baten eta bestetik interpretatzen zuen izpiritua, gero konozimendu edo ezagutza maila umilago batetan, objeto hutsak objeto ezagutuak eta haien ezagutza edo bisioa behintzat zuen izpiritua, orain ez gizon ez gauza den edo gizon-gauza nahastea den dialogo indeterminatu bat bezala presentatzen zaigu errealitatea. «Uretan nabasturik dagoen oxigenoa banatzea zaila den bezala zaila da baita ere, gizadiaren kontexto biologiko sozial eta pseudo psikologikoan murgildurik dagoen giza kontzientzia bereiztea»<sup>15</sup>.

«Egoera berri honetan, situazio honen kontzientzia harturik, narratibak bide berri batetik ekiten dio, hala ere «nouveau roman» banguardiarako produkto akademiko bat bihurtu da»<sup>16</sup>. Akademizismo horren aurka Philippe Sollers, Jean Pierre Faye, Jean Ricardou, Marcelin Pleynet, nobelagintza bide berri batetan saiatuko dira. Hauentzat nobelagintzaren prolema bakarra eskriturarena da, hots eskritoreak bere oldez egiten duen asmaketa (inbenzio espontaneo). Nobelak mundu objetibo, erdiobjetibo eta agian subjektiboa ere deuseztatu egiten du. Ez du Robbe Grillet-ek objeto hutsez josten zuen intriga edo argumentoaren beharrik. «Nobelagintza eskritura prolema bat bihurtuz, Philippe Sollers, Jean Cayrol, Jean Pierre Faye, Jean Thibardau, Marcelin Pleynet eta bestek,

---

<sup>14</sup> R. M. Albères: op. cit.: 372. o.

<sup>15</sup> R. M. Albères: op. cit.: 372. o.

<sup>16</sup> R. Chao: Ph. Sollers. *La revolución del lenguaje*. Rev. Triunfo, 1973, 550gn. z

## Patri Urkizu

deskripzio objetibo eta batez ere dokumentala egiteko pretentsio oro abandonatzen dute. Ez da beraz kanpoko mundua salbatzeko saio bat, ez eta gizonaren barren abentura bat, bietatik zerbait izanik ere, ez arrain ez haragi den erdialdeko errealitate fenomenologiko bat baizik. Errealitate horretan gizona eta mundua elkarrekiko ezagutza saio batetan nahasten dira, batak bestea sortuz, zeren urrutitik bada ere Husserl, Heidegger eta Sartre-rengana itzultzen baita — ez litzake gizonik izanen mundu baten ezagutza izaten saiatuko ez balitz»<sup>17</sup>.

Urkizu, gaztelaniaz ezagutuarazi duen Severo Sarduy bat baino garbiago da teknika berri hau erabiltzen. «Sekulorun sekulotan»-en ez da distantziarik edo oso tipia da dagoena objetoen eta narradorearen artean. Mundua eta munduko objetoek nahastu egiten dira eta baita hitza hartzen duen narradorea ere. Hortik edo horrela ihesten du estilo zaharraren hertsitasunetik.

Abisatu behar dut baita ere, estiloaren barnean, nobela honek ez duela argumentorik. Ideia ez da berria. Barojak zionez «nobela bat gairik, arkitekturarik eta konposiziorik gabe ere» izan daiteke. Baina berria da Urkizuk ematen dion tratamendua edo hobeki esateko tratamendu berri horrekin sortzen den edo duen hizkuntza, esperientzia narratiboa edo nahiago bada nobela.

Ez da ere Urkizu ez ur hauetan sartzen den lehendabiziko aldia. Badu «Euskal Elerti 69»-n oraingo esperientzia, honen gogoia edo asmoa adierazten duen entseiu bat. Esanen nuke orduan intuizioz bakarrik abiatu zela narrazio modu edo molde hartatik, zerbait adierazi nahiren batekin eta adierazi hori adierazteko teknika bide bakar bezala hautatuz zihur asko. Ordudanik dakusaio hitza, diskurtso jarioa, eten gabea, koherenteena eta errealistaena bere inkoerentasunean: «erri gatzgabekua, fabrikez kixkalita dagoena, kiroltokirik ez duena, sekretario kanpotar baten menpean dagoena, iñoiz ezer deusez egin ez

---

<sup>17</sup> R. M. Albères: op. cit. 373gn. o.

## Sekulorun Sekulotan

duena, muzikako bandarik ez duen erria, alkate ta kontsejal denak salduak dituen erri alua, erri eroria, erri p... zer ote duzu ba, horain zure askatasunengatik odola prest emateko banauzu?».

Oraingoan intuizioa baino zerbait gehiago da, rekurso tekniko huts baten bilaketa baino gehiago, narratiba bide berri horretatik abiatzera bultzatu duena. Oraingo hitz jarioak ez du deuseren esan nahi edo ez dago adierazi nahi baten edo lehen ideia baten zerbitzuan. Hitz jarioa da dena. Hori da guzia. Diskurtsoa diskurtsoa da, eta horrela behar zuen. Ez dago deuseren funtzioan, baina ezta ere ezerezaren funtzioan, zeren Urkizuren diskurtsoa ez da negatiboa. Haren ideologiak, mundua ikusteko eta interpretatzeko erak, haren mundu subjektiboak, psikologikoak, kontexto familiar, sozio-kultural eta beste psiko eta sozio denak sortu dute, bota edo isuri dute diskurtsoa. Eta bota bezala jaso dezakegu guk irakurtzean. Gainera nik entelegatu edo interpretatu dudan eran Urkizuk mundua eta bere ingurua eta nota ez bere egoera propioa interpretatzeko duen formak derrigorrezkoa egiten ziaten estilo berriaren enplegua. Horrela nabaritzen zaio estilo garbiago bat eta helduago bat aurretikoko joeraren barnean.

Estilo hau erabiltzearen alde —eta ez d a justifikatu nahia, zeren ez dago deusera justifikatu beharrik— pare bat gauza esanen nituzke ere orain arte esandakoa laburtzeko balioko duelakoan.

Lehendabizi oso ondo datorkiola espresatzen duena espresatzeko. Hizkuntza espresatze nahi horren arabera aukeratu du edo atera zaio eta hori beti da azierto bat.

Philippe Sollers-ek dionez «literatura bat modernoa izateko aukeratu dituen soluzioak garaiaren beharrei erantzun behar die». Hori da kuestioa: «Sekulorun sekulotan...» ez da modernoa bere lerroen zabaleroan puntu eta koma gehiago edo gutiago duelako, gaurko munduaren esijentziaz egina dagoelako baizik. Horrela esate baterako, oso kontuan hartzekoa da egun, aipatu beharrik ez dagoen arrazoiak direla medio zerbait esateko hitzegin daiteken

## Patri Urkizu

hizkuntza bakarraz mintzo zaigula. Alde honetatik, ene ustez, (eta egia ez bada merito gehiago) aukera bat eginaz urrutien heldu daitekeen arma tresna hizkuntza erabili du.

Bestalde, esan den bezala, lehendik ere teknika eta estilo honen bila zebilenez gaizki eginen zuen nobela batetan entseiatu eta probatu gabe abandonatzea. Gainera —hau konprenitzeko behar bada kafe bat baino gehiago hartu behar Urkizurekin— bere izateko forma edo estiloarekin hobekien datorkion hizkuntza narratiboa aukeratu du<sup>18</sup>. Egia da Urkizuk ez duela txaketa asko probatu beharrik bere neurrikoa aurkitzeko, baina gauza da lan gehiagorekin edo gutiagorekin bere tipoari dagokiona aurkitu duela. Eskritore guti izanen dira Euskal Herrian, barrenak eta kanpoak, izate eta pentsatzeko eraketa inguratzen duen kontexto eta zirkunstantziak horren estilo garbi batetara bultzatuko lituzkeenak.

Hor daude beraz «Sekulorun sekulotan...» eta Urkizuren meritorik handienak heien hizkuntza narratiboaren egiatasun eta egokitasunean. Zeren berriz ere diot asuntza ez da modernismo literario huts baten izenean, modan dagoen teknika edo estilo bat erabiltzea. Horrek ere bere meritoa du, disposizio mental on batetan egotearen meritoa behintzat, baina ez da aski. Dagoeneko beste presupuesto oro alde batetara utziaz «moderno» izaten saiatzea ez genuke hainbeste baloratu behar<sup>19</sup>. «Literaturak garai bati erantzun behar dio dudarik gabe, baina batzutan ez dio irakurle medioaren konprenitze neurriari

---

<sup>18</sup> Aukeratze hitza, hitzean eta hortzean darabilkit eta ez dut uste gaizki erabilia dagoenik. Adierazi nahi dut nobela bat ez dela askok uste bezala «behar propioz» norberari ateratzen zaion hizkuntzan egiten.

<sup>19</sup> Nemesio Etxaniz ezarri daiteke ene iritziz modernismotasunaren edo moderno zaletasunaren esenplutaz. Bere kasuan justifikatu daiteke eta oso ondo gainera postura hau: erreakzionario zorroztzenaren denboran eta giroan saiatu baita moderno izaten, musikan batez ere euskeraren eta euskaldunen mis à jour erako bat egiten ahaleginduz. Hortik Etxaniz-en mambo, cha-cha-cha eta gainerantzikoak. Literaturan ere «euria ari du» ipuiarekin, berak esaten duen bezala Robbe Grillet berrizale aitatuenetakoaren atzetik jotzen du nouveau romancier-ena eginaz. Era honetako intentoak, intentoetan geratzen dira eta gehienetan ez dute balorerik literario aldetik izaten zeren lehen esan den bezala aberrante xamarra baita teknika bat eramaten delako bakarrik autatzea, gauza xar asko eramaten direlako besterik ez bada ere.

## Sekulorun Sekulotan

erantzuten. Ramon Chao-n galderari horrela erantzuten zuen Ph. Sollers-ek: Ez, ez dut uste. Zer eta nola eskribitzearen prolema alde batetik, irakurtzearena eta eskribitutakoa konprenigarri edo konprenigaitz gertatzea bestetik oso desberdinak dira heien artean. Honek bere erantzun objetiboa du historiaren zehar. Hau da: egin izan ohi da edo ez. Historiak demostratzen duenez Sade-k egin zuen hemezortzigarren mendean eta berrehun urtez ezin ukan zuen inork ere Sade irakurri»<sup>20</sup>. Galdera horri Eskolaren, Estadoaren eta difusio medioen bideen mailan erantzun behar litzaioke. Ez dira bi prolemak nahastu behar, ze maizegi —eta intenzio guziarekin nahaste horretaz baliatuz—banguardiako eskritorean prozesoa edo kritika egiten baina: «ulertezinak zaretenez ez duzue deusere esaten», izanen litzake kritika; prozesoa haur burgesa edo burokratikoa izan daiteke baina beti erreakzionarioa.

Beharrezkoa da publikoaren eta eskritorearen artean dagoen distantziaren konstatazioa egitea, bide berri bat urratu nahi duen nobela batez ari naizenez. Distantzia edo bitarte hori izatea normala da eta eskritorearen espezializazioari edo hizkuntza narratiboaren prolematika barnean bizitzeari dagokio. Publikoak berriz —pinturan eta eskulturan nabarmenago da hau oraindik beharbada— ez du eskritoreak (edo pintoreak eta eskultoreak ea.) fabrikatzen, asmatzen, inbentatzen duen hizkuntza hori ezagutzen edo ez du fabrikatze prozesoa oso gertutik jarraitzen behintzat. Konprenitzen hasteko biderik egokiena, edo bakarra, hizkuntza berezi borren esistentzia onartzearen da (onartzen hastea, konprenitzen hastea da) edo beldurrez eta prejuizioz osatutako korazak eta oskolak erasten saiatzea behintzat. Inportantea da, esate baterako, eskritoreak ez duela adarra jotzeko intenzio berezirik onartzea (adarra jotzeko bide luzeegi, konplikatuuegi eta garestiegi litzake). Zerbait espresatu nahiean dabilela sinestea eta konprenitzen ahalegintzea, hizkuntza

---

<sup>20</sup> Ikus lehen aipatu dugun Chao-ren artikulua *Triunfo*-n.

## Patri Urkizu

estraino borren bideetan batzutan nekez eta behaztopoka izanen bada ere, abiatuaz.

Gero, lanaren aurrean errespeto bat ere eskatzen da, ze Urkizu ez da materialki benefiziatzen irakurleak liburu honengatik pagatutako diruaz. Ohoreaz berriz zer esanik ez: ordu gehiegi dira lumari eragiten euskal letretako ereinotz xapela bururatzeko. Zure konpresioa eskatzen da bakarrik. Eser zaite, beraz, eta idek lehendabiziko orria. Belarri handi bat sumatu behar duzu. Zure inguruan eta Urkizurenean apurtua, zatitua, pitzatua, izorratua, agerian eta ezkutuan dagoen errealitatea entzun eta ikusi behar duzu eta hori dena jaso duen belarri handi bat. Jaso ezazu zuk ere zurearekin eta juzga ezazu, kabreatu zaite berarekin. Entenditu ez baduzu pasa zaite bigarrenera edo hirugarrenera. Leitu poliki. Aspertzean ez doblatu orriaren puntarik non zauden jakiteko. Ez du pena merezi eta liburua izorratu egiten da. Has berriz ere behar lehendabizikotik edo hogeigarrenetik —gure egunen sentidua ez da aldatzen ohean sartuz edo ohetik altxatuz hasten ditugulako. Ez abandonatu lana bost edo sei aldiz entseiatu gabe. Ziur naiz zerbait entendituko duzula. Entenditu egin behar duzu gainera Urkizuren atzetik William S. Burroughs bat *cut-up method* eta *fold-in method* erabiliaz azal dadin. Eta azal bedi gure hizkuntzaren onerako eta hizkuntzalarien kabreorako bada, amen.

## Sekulorun Sekulotan

### I

**H**OBE huke popatik hartzera joanen bahintz itsas ertzera borobiltasunezko ezintasunaz lehertzen zegoen miren odol bero eta bigunez masailak epeltzen zitzaizkion negu gorriaren egun labur eta gau neketsu luzeetan zehar bat eta huts bat eta bi eta hiru eta lau eta batez kizkurturik magal inguruan dardarka mindura gogor batek kilikatzen zion noizbait hume zoragarri eta beltxaran izanen zenek non eta nola sortu ote zuen gizarajo hark haragi lodi eta freskoez gainezka zegoen aingeru xarmant hura mahai gainean zenbait paper sakabanaturik daude eta andanan jartzen dizkinat zeren zeren fanderiako pentsuak ez merkeenak bai onenak libertatia zein eder den begi urdin eta trapuzko mingain motel eta fargarririk ukanen zuen ez ez da hau lan erraza zer sakea duen aluita horrek maitale arrotz samarra bustiaz eta begirada hotz galdekoiaz sartu zenean barnera kaskagorrik pilota gibelera botiaz eta aunitz arrimatuaz esan zion amari mandalertzera laisterkaturik egia bai pattala dela atzelarien ezkerre eskuina legez bezalakatuko baluke ez zion inork janen arropak bustirik daudenak kentze arren eta batera hala laztantzen zuen ezpain bietan eta haurraren kopeta iluna ama gaztearen ipurdi behean gordetzen izter eta gonaerdiko zeharketan indarrez lotzen eta gezurra badirudi ere gehienetan bata bestearekila lotu gabe gelditzen ziren ezkereskuin eta humeamaren zilbor hesteen gorapilo bigun latzari ihesi doaz beren bizitza osoan gerla hasi zenerako ez genuen espero zoko honetarat helduko zenik ez zaldi troparik ez zalapartarik askoz ere guttiago lau senide eramanen zizkigunik...

## Patri Urkizu

sorgin zaharrak zurezko tronuan eserita jarraitzen zuen nonbait eta hezur besterik ez zuten morroi ergelak eltze handi batzuetan egurrezko ezpalez konpota lodi baten biraka zeuden xokolate antzeko krakada izugarriez eta moko gaizto zorrotzez engoitik bele itsusi multzo batek erromes harien lepoetan bikeen haragietan antzo koskatzen zuten zainak lehertuz odol kolpu beltzez haize oro bustiaz edonorren indarrak akiturik irri eta farraz honelako erretoak ez dituk hain errazak jasotzeko ongi diozu aztarna segi behar zaie zail da ordea zakurrak usain eta kutsu eta kiratsik senti eta nabari arren noizbait agortzen denean ur ertzean nardagarri hark ez zuen gustatzen besteek bezala zamari mando eta asto zaharren birika eta zakilpotroak samindurik ez utz bridarik laxuegi bertan daduzkagu bai atzeman bahindut ene atzapar artean itoren nian astazakilaluita ene hamabi edo hamahiru urtetako neska mutil polit eta pottokoak sekulan izorzirinen berri jakin ez zutenen arimak hauts eta janen zituen bada ez ipurdi zikin eta marizikin nahaskagarri hark zioen bezala ez zidan arparik joko koño puta hark putanero galantena puteatuko zuen bada gura zuela titi jorren galde eta partez marmosarrosarekin blablabla buztan dardoez eta kaka zaharra zeren kanaila salduak besterik ezpaiziren madarikatu deabru haik beste batean atzerri eguna bide zela eta alkate jaunaren danborreroak jakinarazi zigun herri guzitik gaindi zabalzabal aaaprunkataplun albiste eta notiziak gudaoste izugarrikaragarri baten manuz eta lista luze baten zinatzeke gazte orok pilatzeko herriko enparantzan atsoak leihotik eta agureak daferna atariko aulkietarik keinu latz eta txapel agurrez adio mingarri eta malkodunak zerizkotelarik natura hain on han eta zergatik permiti zezakean zeruko jainko hark ze semeak bere amaren magaletik urruntzea eta geure mendietako hodeien lehortzea eta txokor txahalen ezpainmentzat titi agorrik edukitzea nondik ediren litzakete erroa hain erro handia zail da zakurrak ukan arren erretoen jasotze soila hi bai hi bizi haizela beti ihesi habilela nola ni ez nauken frustratu bat ezik ez istoriogile ez lelo berrigile ez mitohausle ez ezer hi bai hi hintzen sasa hintzen desegile zera hizkuntzalaritzako ikasle zintzoa nola uste duka bada askatasunik lot dezakegunik bide hauen eta



## Sekulorun Sekulotan

nolanahiko pauso ikarati eta helburu gabekoen bidez hori ahal uste duna hemen kaka zaharraren aharrasi galanten orde eta ordainak beste baterako laha beharko ditten neska baina nortzuk dezakete horrelakorik horkonpon mariantton zikin likits deabru demonio zital hori hi ahal haiz bada erresponsable handiena agertuko ote ditun noizbait ihespideak ez daude oso garbirik baina zenbait maite haudan bai heure gartzelatik axolagabeen ikus nahi hinduket zer abalez hartzen dudan zezen puzka zerri aluaren zankoz gora jaurtiko balitz katearen urrena hauts baledi edo aldameneko langiledia aurki ez baluteke noraino ez ote litake jalgiren ideien aingura eta pentsamenduen habe nagusi jator eta irauke izanen zenaren begi pareta baina badirudi ZIGOR pean inondikan hori ez dela lortuko sekula honetan patrikan ispilu bat dadukala eta gerrian metralleta toalla pean ondartzat bidean haren galdeka eta begia burua gorputz osoa liburu tarteko laboratoriotik ihes egin nahian hain txotxolo deritzaizkigun zenbait neska mutilen irudi polit eta marrazki eder gure ezinen erantzun legez eta zerarraiotarako joaten dira dantzara txepel alen ziztrin haik horrek lehengo kontuak ditun bai baina ez dit axola esku gogorak ditzik horrek egia dio loyolako ziraba erdoituak hik ere bai ukanen hituzke bai ahal dakin ordea zenbait kostatu zaion erloju xatar hori nola gainera ez haizen deus ere saiatzen behar den eran ez duk harritzeko gero kalez kale ibiltzea kakaputz hantusteko potro hori xapeldun izanen haiz bai baina zeren kostata litzake badakik gauza ezinezkoa dela modu eta alderdi guzietarat azter ondorean beha haren ilusioak zelan lehertzen diren zerutik ustel usairik poliki poliki sua biztu eta gero kandelen itzalez ostie deunen edertasunen partale ezari ezarian zimaurtzen zihoazkion masailetan masail eta sudur pean sar ahokirats zuen hartan amen amdg begi azpiak pilo gaztearenak ez ziren eta lehen hasiren zituen betebeharezko ekintzak ahantzirik ixi ixiarren semea hori dun mutila jainkoak ote daki babarrun jale eta jakintzarik frango nahi eta nahi ez bebarko luke nanana baina gaurko ergel zoro maltzur aldrebes komunist honetan non unibertitate dugu arragoa leku eta suemaile prolema ote dela jainko bera bai

## Patri Urkizu

zera erdiek ere ez dute sinesten eta ehun eta ehun beherreun bota arraioak eta ximistak xispak eta xinpartak baietz ezetz bostehun hogeiri hori dun mutila hori dun neskatil lirain hori dun egurrik ematea hori dun larrua astintzea bai hori da ifernuko mila deabru darama espainola dun hirezat okerrago horkonpon zaite burgeszanpatzaile euskaldun badaramazkigu zikin razistak azken egun hautan prolema astunen zama bizkar gainean eta bizkar ezurpunta gainean eta pitoa odolez erdoiturik arteraino dadukate ale bakarti batzuek jo eta jo lanez izerdiz amildurik zigorren lan guzti hura ordea nola eta norekin hasitako lan hura gau hilunaren eta leize zulo beltzen tristura zerion lan hari heroen fede usteldunen gisa kaska gogor horiek badakizkitez nahaspiltzen abenduko egunak zeren argitu orduko hiluna kai eta muelle zaharreko borroka hilen oihartzun apalekin garrasi fin eta gorriak eta zarata zartada ziplizapla muturretan utzi zuten arrainketari hura eta honi ere gauza berbera gertatu zaio maite ahal naun maite duka ala ez haragi ustelarenpetik dardoztatzearekin bat malko negarrak hedatu zitzaizkion bular tarte bigunetik isuriaz auskalo pittin bat maite ote haun baina badakin sekulan eskuinak ez duela ezer ikustekorik ukan ezkerrekin eta joko joko denez gero eta noiz ikusiko eta ikusi zen gizaklase ezberdineko bikote bat elgar ongi amaitzera hala guztiz ere azkarate pariserat igo hukenean nola eta nondik gelen eta janlekuen berri ez zitzaion deus ihesten batera eta bestera honat harat gaztelupeko morrontzan eduki genuen noizean behinka guttitan hala ere esan behar baita sutik bederatzirainoko bidaiak bazuten alegera eta bozkario aski orduan predikaria pulpitotik gorputz erdia hutsunera ageririk jalgi zuen boz latz hilun hits garratz bat hozenki handiak dira haragiak eta haragiaren amorio desordenatuak egiten duten kalteak amorantea bobobo gelditzen zaigu bababa nagusi no totzen duk emaztea gizon oiloa oilar zeren emazteak esku handia hartzen baitu amurus itsutuaren gainean ema ezteus batek errendatzen du gizonik handiena honek haragiaren aintzinean usoak edaterakoan bezala badabil zera bere denbora armiarma sare baten deuseztatzen pasatzen zuen ideiazko eta liburu milen puzketekin eta joskera nardagarriaz labe goriaren zulo urdin aluitan

## Sekulorun Sekulotan

ittorik zebilen tristeziaren pisu eta zama handiak kiskurturik zegoen neskatilan edertasuna izorratze nahiak ezin besteak zeduzkan eta honelako nahigabe eta dolorez ornitu eta kunplituko zuela noizpait inork irakur ez lukeen egunkari izkuturen bat xapeldun ordea ez zuen iraunen denbora luzean ez ez zuen astirik saiatzeko arlo eta manera haietan eta laister gazte batenbatek arras irentsiko zuen ez motel gaurko materia eta gazteria bestelakatuak zeudek ez zegoek gauza horietarako zaildurik gogorturik lehengo baserritarren antzo alu zerri galant haren sasisareetan hirun zian armiarmaren lilura faltsuaren paregabetasunean eroriko hintzela esana baitzidan galtxagorri jaunak orai lehen emaztia debalde utzirik bigarren bat hartzera duk abiaturik hori ez zen sartuko berriz ezkerretako arazotan zer ustedun bada atzazkalak eta potroak erretze soila ahuntzen gauerdiko eztula antzo zela edo nola badiren bi jokalaria modu ezberdineko joko, lizun eta errenta gaizto eta joko eder on pilota lekusainduetan eta hamabihamabietan anjelusdomininunciavitmariako zenbait nahasketa eta presondegi zenbait izerdi eta neke zenbait alferrikako zama eta odolisuertze gerla bedeinkatu hartan baina ez ez zezakean aldegin ez inondikan ere ospa egiterik baina egin ohi zuen ez ez duk jainkoagan sinesten oh eta noski baietz neuk egunoro telebisioa dakust lehena hor dakiten arauaz isilik eta beti jokoari darraikona muslari ona baizen belzebuten zerbitzari hura eta sekulan begiak bere plazer arriskueta rik jalgitzen ez zuena ez dena...

gaur goizean leihotik sartu den eguzki printzaren izpi bati segiaz harira goakizue armiarmak eta sagutsuak zarazarra saguzaharraren ezpal eta hego beltzen satinarekin eta igelak irentsirikako irri far galduaren mostrarekin hasi zitzaigun eleztatzen bi ez ipini oztoporik gaurko gatibu eta gaztediari nik beltz bat hik zurito bi hark kubaerdi hiru eta egarriz hiltzen ari denarentzat sugearen azal lehor hamahiru eta gora kuba askatutaren jatorgabetasunaren jatorkizintzoa denen osasunerako eskerrik eman ahal dion nik ez baitut haunitz edaten ihaz

## Patri Urkizu

ordea bai sobera eta orain tripak garbitzen niagokela eta gerlarako baliorik gabe naun badiakik diru kontuan guzien xahutze modua eta ikus ezak zer gorapilo darabilkidan patxaraz zigarroren bat erreaz eta nerbioen dardarak eta kezka amildurik huts potto zeren jokoa pilotari ona haizela entzuna niagok leher arteraino azken mami ezur eta azal larru guztia bizkarreko eta besopeko tartean odol iturri batek jario diolarik jakinen behar huen kontuz ibili behar zela zeren kirolariak aberriaren ohore ospe eta izen onaren defendatzaile gaituzue geure zainetan hirurehun gizaldien ordikeriak badaramazkigu ere eskuin eta ezker aldetikako oihartzunei belarri gogor egin esan ez zeren zure atsoak beti duroka eta errealka monarkika denez gero kontatzen dizkin xanpon apurrak hau iso haurra hil zaigu jauna barka iezadazu apostuak ez zuen hil gosez akatu maite barka eta porsiakaso kinielak bete hitzan eta eguneroko orrialde kirolezkoa usain nabarmen dituzten hizkiak gustora irents editzen dun neskato hark galdetu zion eta itaunari gizarasoak ezin ihardetsi ukan zuen bbbai begi eder txomin itzal ezak argia hertsu diat kanpoko atea baino idekirik eta biztuta laha nahi diat hilunakgeuregauababesdezan txomin ohera hator enekila bai zigor gaueko neska zoroen lilura begi zapladetan nabari zebilkian eta edozein jokuzko mugimendu estraino bulla eta garrasi ezpainen sinfonien jirabiren hala gorputzen arrain dantza eta harrien larrutzea hirugarrena beste klasekoa dun dendariaren denbora xahutzea nola egin ez jakinik nola hil asperturik poliki bizioak bere burujabetza harturik baina sekulan ura bere bidean eta urkatze arren bildur eta diru haunitz eta sobera ez ukanik lokarririk erosteko mementoko grinak ezerezaren kapazidadeko baldean bota zituen laugarren eta gilen aitzinera itsaspunta hausiaz arkume antzo horhemenka badabiltzen lagun arte hilak non alkartasunezko pitxarrak galdatzen zizkidaten eta diru xahutze alferrikakoa dakusalako sorte txarrari kulpa botiaz ahultasun ezjakintasunaren manuz sekulako koblen leloak gordinki badirau ere...

### II

**H**ILAZKIZOROK baldin badio ere eni zer axola gaur gauerdiko hiluntasun eta bakardade hertsian blu baten doinu zakarrak eragiten nau negar malkoak doaz bere bidetik tronpeta zaharraren noten bizkar behera leioa ideki nuen ez zen hilargirik ez eta izarrik urtzi zuristar hartan gaizki diot ez zen zuri beltz baizik baina halako beltz argitsu batean non pasaiako trenak eta bidaiariak halako tristura arraro bat uzten zuten batek bere ximist urdin gorrizar doinu eta zalapart berdinarean medioz eta besteak hain triste ziruditen ibilkera malmoen bidez ez ote nintzen nerau triste eta horregatik aldameneko gauzak oro eneganatzen nituela edo hara hor non azaltzen den trabeska izkinetik honat ordi galdu bat leihotiletara eta haize hotz isiletarat birao gordin nahasi zenbaiten orrua boza kazkatu batez jalgirik zeharka zebilen eta honako batean zerraldo zilipurdika eta zangoz gora erori zen metroko eskailetatik behera han zihoakigun pumkatapumpumtt burnizko atea zutik diraute eta han beraren zentzurik gabe lo zetzan garaietako eta buruko minen tartetik xoko bat xukundu nahiaz bere gazte garaietako amets eta proiektu eder nesken irudiz jantzirikakoen babesean pake ihestar batentzako joan nahi badun hoa laister gainera mugi adi ez diat ikusi nahi ene begien aurrean bai baina ezertto gertaturen balitzaioke zer arrazoin ukanen zuen ezertxoren kulparik gabe londresko semea bezala epaituko hinduteke ene maite bikainetarik liluragarriena denetan hango zeragatik eta honegatik eta hargatik eta teoria haunitz ikasi ditudalako zer uste dun hik hire pilota jokoetan hengoan bizkitartean hik lehertiak eta indarrak jarri dituk baina ni ankokerra izanik beste

## Patri Urkizu

mailako zera gauzetan jardun beharko hara bada nik pentsaturik diat non nola noiz bota eta zer efektibitate eta segurantza osoa dugularik hauk izan badira lehen betebeharrak eta premisak beste baterako bai etxean anaia ttipienak klasikoak irakurri ditu badakin sorte berean lotzen ninduen zilbor hesteak ebanjelio sailduko eta kosmo guzietako xori kantorien arauera hi haizelako mukizuen eta ni garailen bulardunen eta laurhogei kiloko gizonik ederrena antton ez adi bildur hau eztuk eta nobela klasika baten gisa egina ez duk ertzainetarik ihes egiten duen hiltzaile errugabeko baten istorioa esperantzarekin eta ikararekin egina baizik hemen sekulako pipadun poliziarik ez duk agertuko ez eta bigote erromantikorik gauza hauk ordea ez dute egiten edo desegiten nobela klasiken iduri ona ez eta gure aiton zaharrari gustatuko litzaiokean bezalako mendi garo usaiko eleberri gutun bat ni egia esatera ez naiz zintzoa bazekiat hau entzutean irrifar egingen dukeala gauza arraroak pentsatzen hasiko haizela lalala baina nola seguru naizen eta dudarik gabe oker habilela horregatik ene misterio istorio honen kondatzeko agindu didatenez gero hara hemen berehala eta ahal dudan garbienik errazenik eta laburrenik gartzela hontara erakarri nauten ibilera gaiztoen berri horhemena nabil heroeheroia amodiozko drogen bila baina hobe esateko diakusaat ez dakikela ere nola amodioa datekean hori jolasean ikusten dun zera duk bai zera ekin ekintzak behar dizkiagu pilotan bezala liburu asko irakurri eta deus ere baino okerrago jolasean ari ez azkenean nesken atzaparrak bilduko haute denei legez ez dakik honela bukatu edo segi edo iraunen dudan baina gauzak egin baino lehen ongi pentsatu behar zirela zioen amona maiteak eta horregatik nahakizue beste mundurat lehien berri baten xerkan organizazioaren premian gabiltza dabil zabilzate eta dabilza kalera jetsitako baserritar bat zuen semerik gazteen eta gaiztoen nauzue han goian bazen bai ordenik, bost anaiarreba genituzkean bizibizirik eriok ordea bat eramane zuen eta laister eramateko eta aingeruen ttipitasuna eta ontasuna ezertarako kontuan ukan gaberik eramane ohi zuen bestea ez zen gauza hautaz etxean mintzatzen ni gaztetu eta gurasoak aguretu zirenean galdetzen nien mila

## Sekulorun Sekulotan

ezberdinkerietaz eta haik saiatzen ziren gertakizunen apurrak oroitza berdinetan eroriaz eta frustrazio guzien birresanaz eta mila bider erreplikatuaz beti barren barreneraino lepoan eta ezpainetan afarra dakusanean ez du deusik balio pentsatzea hau honela egin banu edo dagigun hau eta beste hura garaia pasaez gero ez ezin daitezke gauzak erdi eginik laha utz hitzak eta kontemplazioak sekulako eta jarrai behar duan bide eta lanei saildu guzien eguna huan eta usantza zenez gero kanposaindura abiatu ginen intzentsu usai eta isopo bustiaren tanto jarioz koroe beltz eta hizki urrezkoen ornitzen zituzten egurrezko gurutzeak jantzi hilun tartean ene istar eta belaunak neguko hotzez erreta nituelarik Hilherriko bustinez eta lohiez zapatak zikindurik hilobiak sss dardarka zegiten kanpaiak triste eta erresponso pilen errezetaz monagiloen poltsikoa xanponez betetzen orain mendian barrena gora eta goraiheup gailurretarat goazi arnegi eta ni bihoa kontuz bideska horretarik ez beha gibelerat zeren poto egitea bezala litzake har aski indarretik eta haize hotz hori biriketan sar ai enia balitz horietako butroe bat bere atzaparretarik zintzilik oskarbian zeharka mendi tontor harkaitsuengainetik hegan pasatzeko barka arnas pittin bat har nezan bizkar ezur lepo gainean saskitxo baten barnean seguru hegazkinen portu hartan abioien hegalpean eta maleta tartean gorde bahintz auskalo honez gero beste erresumetan freelibroetaaske kaleetan zehar eta unibertsidadean abiatzeko orain ordea euts arnasari har zangoak eta aitzinerat gosaria herenegun jandako sardin zahar pare ahotik jaulgi arteraino har ezan neska hire pauso arin eta azkar hori zakurrak atzetik datoz eta badatorke otso handia ere nigatik ezin diat pauso bat gehiago ere eman aupa bazterrerat ator pinu zuritu hauen magalerat goiko borda igaro ondorean lasaiatuko gara apurto bat espetxetik jalita joanen zaio bila hori dun mutila hori dun sakea bah oraindaino ez dun balakatu hire aita ez ez dira berotu ondo ikusiko dun izerdi apur bat irtetzen duten bezain agudo larrua jo harri larrotuak xortarik kilika jo makilaz jo zakurrari zaungaka auauaua hilunaren gibeletik datozkigun zakur salatariei kakatsu horiei koska eta kroska zer errabiadun

## Patri Urkizu

ziruditek buztan lodi eta gorri motz eta bergabergariaren bergantasunagatik ttipitan bezala galdetuaz zer arraio ote zen makil antzeko zakil hura mandoak sabelpean zerabilkiena eta lagunak farreginaz xorien kabi bila ziharzuten zera hura berdin luze eta finak bailira hire urrezko aginak indarrean badaude ene ganibeta ez duk kamutz nahaskagarri alena zer uste huan eta segatuaz begia edeki zeraukon automatakiro ene maitia zenbait maite haudan ez hori ez dun doinu benetazkoa beha dezagun berriz ene perla orientekoa itsaspeko izar ditzitaria ene mahastizaindari ederra ideia galdu eta desager dagoena ene abuztuko jolas eta xampañ izoztua ehun eta ehun berrehun jo eta jo bota lurrera potakaka horrela punpalo ongi neur gero pausoak ez utz pilota eskutik batera eta bestera lauran jo eta aurrera bidali gibelerat sarean goiko marmolean jo gabe hiruraino eskuinean dagoen besoa zabaletik segan antzo har beza xokorat zikzak horrela hori da ez xahu indar geihegirik gorde geroragoko ere xalo eta buru kinuak ehh zeren ugari ukanen dituk bai nesketarik eta bai lagunetan ohoretua adoratua gurtua onetsia ahoz aho erabilia eta zangopetua lirainez ornitua sekulorunsekulotan amen a zer pailazo beltza haizen neska mesedez dantzatu nahiko ahaldun duzu diot zera behatz puntekin eta atzaparrez bira borobil bat dagi zia mutilak bira erria kontu aparejuak eta erramintak izor ez daitezen kontuz esku horrekin arraunik ezin daiteke sar hain goiz zera esker mila ez du axolik bababa handitzen zarenean ikusiko duzu isilik egoiteak zenbat balio dun ez gaituk maite baino elgarrekila hain xarmantgarri pasatzen dittiagu gauak eta egunak orenak eta segundoak ez eta bai ene itsusi xarmant hori eni ez erran horrelakorik bestela nire amagana salatuko haut eta badakinat zein zelosa den hau da komeria hamarhirur xanpon handi zilarrezkoz erosi eta hoge eta hamar mila pezeta izkutatu salatzaileen alokairuez hamabi seme mazkatu behar eta beste bost mila sobornoa aurrera eramaten baduk hau da honela eta kanposainduko aldapa gaizto hartan aitasemeak semeanaiaaren zementozko egurpisudun hura gurpilderdoiturikako katxarro batean eramanez ezin aurrera eta ezin atzera aldapa erdian izerditan blai izerdi patzez alkandora prakak



## Sekulorun Sekulotan

galtzerdiak eta ezurak bustiaz hilherri madarikatu hura udako arratsaldeko hiruretan ebaki zidan armarik gabe bihotza izanik odol braboa ez ditek berehala salatuko ez motel lasai adi badakik zerbait sumatzean nire deia instantean adituko hukeala jendea aspertzen hasi bazaigu beti promesak eta gero potto sekulan baino atzerago pauso bat aurrera eta bi gibelerat huelga bai huelga ez eta juerga bat gehiago xoxolakerietan ahanzteko badirudi bitartean zerbait aurreratu denik bere semeen odol ugaria erregalatzeko pottoka baldeka eskubeteka kaskabarraka zabalka ba presondegiko ur zikinetan ikarzia gol ugari hemeretzi urte zituen gazteto bat potrorik gabe betirako ahorturik esterilizatua utzi badute kontuz eskaparateekin ai alferrikako bideetik segitzea tontakeria hutsa deritzaik behinik behin gazteria mitoz elikatzen duten guzi horiek urkatu arte ez da biderik garnituko ea bada urkatu ez baino lanean denok jarri zortzi orduz gerriak eta eskuak zaildu ditzaten noski bi lerro beherago paper hauk hausi xixixiki egin eta surtara ala papertegira papelera española sociedad anónima PAPELERA ESPAÑOLA SOCIEDAD ANONIMA urola oria eta urumea eta oyarzun ez baita ederra zuen kolorea ibaien usteltasun eta afar nardagarrien itxura zurikerien gaintze elurte honek ezpaitu erremediorik UKRONIA—IGELANDIA ko herri madarikatu honetan eta aiton zoro hark ongi zerautson bezala su eta erre desegiteko garaia iristen ari zaigulako isiltasun denbora pasatu delako tiempo de destrucción heldu delako bat eta huts geure arimen iduri den zuritasun guzi hori bota behar dugulako batzokian edo etxe partikular batean ez du axolik mito handi horik amodio erreboluzio eta erlijio eta beste bat enetzako kuba askatu bat ron askorekin eta koktel molotov haunitz eta akaso makilen menpean dauden horik beste amets bat ukanen dute tronpetari zaharrak eta 102 pezeta eguneko soldata datorren urtean hirur errial jasoko baitute ordua eta gauzak bere goraabiadean eta berdin beste gauza asko beherakoan eta berdín deritzaigulako noski ikusimakusizerikusi soinuaren bidez besamebesamemuchocomo sifueraestanochelaultimavez eguzkia trumoia arraioak eta ximistak eta xinpartak izortzen hautelako mendebal ifarraldeko

## **Patri Urkizu**

haize hotz kortanteak hori bai dela sake elegantea hilargiarekin eta hilazkizororekin ehizera gaur gauz irten beharko duk ezpatazorrotz hori ipinirik gerrikoan eta dantzan hasirik hi eta hire balleracoac besteric ezpaliz mendarte oietan eusqueraren saietsetic euscaldunoc galduac baitatuac ere guinduec erdaldun becaitez ecin icusiaz ta juzcu gaistoz baldin elcar artzen baguendu gucico nor bere sallari datchecola Españian icaratuco guntuque españiar guciac eta Francian franciar guciac non da ordea elcarte hori nagoan isilik nere min garratzena da are eztacuzcula onettatic darraizkun calteac ta gaitzac eta dirudienez ezagutuco ere eztitugula ditugun on piscac galdu ditzagun artean pulpitotik burua atzeratuaz arnas oparo bat galantki edan ondorioan hau hozenki jalgi zitzaion eztarri garratz hartarik organizazinoa non dugu hara hemen sinpleki esana hilazkizorok dioena...

### III

**I** LOVE YOU nik zuretako for you balea ertzain bizkorrik ez zegoek munduan hik uste duk zera leloak direla baina baibai ez benetazko istorioak kondatzen dizkitek ez motel leloagoak dira zertarako ikasten dutela uste duk baina ikarez jendea nola menedekatu etabar dantza wyskia eta isilik ezpaina ezpainekin loturik lotsik gabe dardaraz egonen balitake ez huke orain honelako irrifar gizarasorik zabalduko garrasi egin hau hori duk hire behar protesta hoberen eta itzuli omen dira beste hamar bai atzazkalak more more ukan odoldurik gorputz osoa ukan jantzi guztiak odol lehorrez larruari peasten eta pilota lekua enarak txistu xiu eta xiuka aizea fusilatzen eta teiltupeko kabi erdoituetarik kaska borobilak eginaz ez mesedez nik esnerik ez dut edaten ez naun dutxatzen eta bai ordea goxoki batez nahikoa dut eta sobera pilota hauk sos handiak dira ehun eta ehun berrehun ehun eta bost gramoko borobil motelak nahiago ditut bizi arinak ximuen isatz ximistagarriaren bezain azkarrak nik ordea ez a zer arraultza pareta bai afrikatar zenbaitek lurrerainokoak omen horkonpon haurra beti haur eta humezurtz dena gehiago zerri alu hauek harririk arratsaldeko haizea ukatzen didate arnasa ezin da zoko herstu hontan hartu ez edan trankil arno gorrikerik zeren espanian ez da horrelako deus gertatu non ikusi da horrelako lizunkerik zikin lotsagabekorik arrotz estrainiero hauk estropeatzen ari dira gure asaben eta gure betiko ohitura eta usuario garbi eta txukunak diot luterok kalbino eta beste pizti gaiztoek iraultzaile deabruet munduan azaldu baino lehen ziren eta bizi eta nola gainera gure herri maite honetan usantza garbi horik nork eta nola ipini bada paretetan gizon bat kaka

## Patri Urkizu

egiten komun batean goazi balkoira han freskoago egingen du bai blusa fin horrekin ez ahal haiz hoztuko berehala ez neska neuk berotuko haunat ez dago tronpatzerik bizitza ez da huskeri tatata poliki poliki tronpalarien arteko tronpadunen galantenean bihurtu haiz gaur goizetik bilboko bi anaia horiekin galdu egin bai dugu legun has adi maite lot ene gorputzera ez izan horrelako eroskorra basati baten antzo habil basurdearen gisa hortzak herstuturik ez ez duk nahi horrelako zibilizaziorik zer gabiltza abiatu kontrako zibilenkontra kultura kontrako kontrastalari rekonkistan rekontrolis nekropolis honetan non banpiro eta saguzahar haunitz odol eske libro daude tontonton tanrakatapan bateria eta bomboaren erritmoaz argiak bizten hasi ziren neskatxen begiak dizdiz bete ziren haren belaunak gona laburren barruko haragi ederrak eta ezurak elektrifkatu ziren propaganden akatsik handiena bere laburtasunean zegoen hobenetarik hobeen nor ukan badaki ala eztaki bata eta bestea batbirulau yeye bosezazpi yeye sanjuandarrak yeye irabazi yeye orlegi ori beltz fifa harturik mozkortzen naiz ardoa edanik xoratzen naiz kortejatzea lotsatzen naiz nola demontres biziko naiz aire ttunttikittun oilarraren zipotz kresta gorriaren moduzko odol beroaz begirada bero galdu batez nork jasoko ote zain behin batean begirada xepel hartaz enamoratu ninduen eta soinuaren bidez eguzki epel eta garbienerat abiatu ertzain maltzur hura ailo fiu zeren gli uomini farano la pace e non la guerra farano lamore cui tutti siamo borghesi aitoren semeak seme on eta zintzoak ni naiz hi haiz hura da gu gara zu zara zuek zarete haik dira ziplizaplun eta ostikalarien eskuetan baizegoen erresuma eta zorionaxoriontasun apurra-hainbat maite zuen herri hartan non aita semeak irakasten zituen baloiari nola ostiko ederrez jo lehen semea preileetara bidali eta gero zeren baserria saldu izan zen gerla ondorioan saldu ala konfiskatu salatari hark hobe esatera ehizera gaur gauzez irtengo gara denbora ona bide dugula eta isiltasun botz bat nabaritzen dugula geure nahiaren irrifar gizaraso garrasi ustelez hausi pilota lekuan dabilta enarak xiuka eta tellatupeko kabi erdoituetan eta haur galduen negar suntsigarrietan tiragomez eta azkeneko harrikadaz

## Sekulorun Sekulotan

arratsaldeko azken aizea ukatzen dietelako ez dago tronpatzerik surangilek ez dute sekulan ukanen hegarik darwinek filosofo puroak zioenez bai zera hura ez zegoen bere onean-allo-abereak eta animaliak eta rousseauren nahikunde estrainoak —vers la conquete du pouvoir— ze konket konkret kasket koketa tatata zeren politikak galdu huan beti aiton zaharraren bertso berria zioetenez ez ez dira berdin tronpa eta bonboaren erritmoaz argitzen dohakizun bat eta bi eta bita eta lau eta bost eta sei eta zazpi huts benito eta mussolinik hogeitabi patxiku eta frankok hamasei formenterako uharte arrotz eta lehor hartan margolari bat dirau cala sahona alde duela orlegi eta zuri iheup hori hori mugimendu elektrikoak bailira seinale estraino horik arraultz atomikoen gorringo mikatza izanik ez eta hiru arraultzeko tortila digante ustel barka eta apostuko kinieletan diru guztiak xahutu baserri eta xokor behor eta asto galdurik satan eta demonio guziek daramatela ez antiparrrik bero-epel eta gai etzazkizunaren nire bihotz izpiak zorionak opa dizkizut zorionak bihotz bihotzez zuri aita maitekor hori samurtasun beroan erregu epelenak kaka zeriotenak nonnahi takataka berg bergaren teoria liluragarria besoak lepoan eta saietzean salto zaldu handi saldiasen berga tipula zaharra surangila biziaren antzeko larrukoa zalduondo 911 behatzak eta atzazkal latzak zimuka marruka gora kopeta behera topete aiaiai mutila xapela gorria maldan behera amuarrain eta oilagorren beda idekiez gero ehizean bizkarra jira cta lurrerat bai zampa zan eskua indar astunagoaz bestela zapla lehertu egingen zaik eta oso handitua baduk begitarte eta begiondo uheldatua ea bada pittin bat jeisten diren kristalan larun goiko tontorretik beheruntz lurrunez eta lainoez jeisten hasi baikinen hasi dira itsasoihanhartan larrujotzaileen seme jatorren lirainen polliten eta hadardunen seguruen oroitzen ahal haiz nola hire aita danborrero huan eta herriko enparantza nagusian haste hastero ipintzen zen erdi-erdian tripa borobil harekin eta bi makilak eskuineko atz eraztuneko eta ttipienekin kontzen zituela zangoak ongi zabal hedaturik bonbonbonrakataplón por orden del señor alcalde don eusebio urretavizcaya elejandia hago saber que en esta villa de esta en adelante

## Patri Urkizu

se prohibe bi gauza dituk munduan ederrago direnak erdibiturik eta erditu beharrak daude eta dutenentzat ez puzketa askotan xikituez zeren maleruski doloresegi litzake andereak eta sagar erreginak eskopeten jarioa bazetorren negar eta malko eta zaputz estraino ertzainen arteko malko eta kinielistak inbentaturikako formula miragarri hura amets eten gabeko zaputz hartan tiro eta tiro inondikan ezin dezifra zezakean kabi xoragarrian atzetik eta saietsetik eta perdigoi galduez errotatxori gizaraso hura arbol adarretik jausi zenean barrendik aitzinetik gainetik eta alderdi guzietarik eta hi kabi barnean kantore mugi eta mugiarazi eta ezin bat ados bina egozi xikiarraio dittit motel ekintzak agintzen dutena kotxe zahar hari kontu bagenion eta ez bagenu zanpa ainbat azeleradore kaskar hura beste baterako badakik eginen dugun motor amerikano bat kontrabandoz pasatu eta seirehuneko kaxari ipini urrezko xirrinda bai har genezake ez ahantz azkeneko mementoan patrikako tronpetarik eta lanbro tartean oiho bat zetzan toberaz eta irrintziz eta xalapartez eta adarrez eta silibitoaren nahasmahas baten gisa eta fardel urdin more zikin gerritik zintzilik dakart xirrindan goizeko bosterdian langileak abiatzen direnean fabriketako leize zuloetara hortzak garbitu gabe begiak atz puntez bustirikan eta esne trago bat presaka edanda gero eta berrehun kiloko edo eta ezur besterik ez zedukan andre langileari musu tipi bat eta erdipurdian xapla eginik zangoen loak esnatuaraziz edozein errebueltan edozein tranbi gaiztoek edo kamioi monstros horietako batek edo tren bidea pasatzerakoan fitxa garaiz betetzeko trago arin eta xepel batek zanpaturik burni eta harriak haragi beroz besarkaturik ez da horregatik kezkatu behar ez ene amodiorik adi aurrera baina kontuz ibil soinu ondartzan bebin batean maite ziren bi omorante liberalki itsuski eta hain maitekiro zeuden haik ez zirela konturatu olatuen sorbalden itsasoaren babeserat sartu zirela bere amodioa eta maitasuna akiturik zegoela ezpainak eta ezpatak bi gauza oso ezberdin zirelako edo bakus jaunak lotze hartarik sirena itsusi eta boza liluragarriko bat ediren suge bezalako buztan ta munstro baten hertz erdoiturikakoekin zeren eta non debekaturik zegoen neptunoren

## Sekulorun Sekulotan

amoranteen manuz bere lurraldi bustinezkoetan izorzirinik zabaltzera urrezko liburu handi batean itsasondoan zetzan harkaitz baten barnean honela zioena CETARIUM balearena eta Urtzi Thor bere Dorre Xuri Aratz eta Garden eta Garbi purotokitik bere hile urdinak alde batera botiaz arnas gazi bat arnastuaz gizon arrazaren purtasunaren omenez hemen deslurraturik bizi diren intsektoen deitzen dioten PURO MONTECRISTO deritzan errekin metroterdikoa erretzen hasi zen bilbo eta barakaldoko sulabeak piztuaz zeinen ke aratza mendi gailurrean oparo eta arin zihoen herria lutoz dago zeren garbine hil zaigu atsoen konjuroen bidez eta medioz ni ez nauk errudun egia diot haren heriotzaz beste norbait far eta far jarioaz harkaitzetarik tarteko zipliztin zitalez biltzen zihoakigun zuri beltz pailazo beltzaren arima urdin eta argazki bezalako maindire likitsetan hainbat birjin eta neskats hautsi zituen arima beltz hark eta orain herriko tontoak zioen kantari nagusi gizarasoa berak uste du ni naizelapobre pobrea bera bera hohoho kontuz habil haurra hantxen badabil dardar adardun zital hori ximinien eta kableen eta irratien baso burnizkoetan eta ezkerretarat joez gero haruntzaxeago eskuinerat jo ezan zeren ezin diat maite min ematen naun ez adi hain astozakil ez dakin bi paretetarat eta eta xapa gain alerik ere botatzen hau joko aspergarria horrela jokatzen duk jo bi ister gordin aldean zeharka eta gero xoko hilun bigun hortan laha polikipoliki errotaxori bat beste baten isatz laburtuari segiaz ziabogaka bira eta bira xanpaz eta arraunez maiz abiada arindurik sarturik ezpala ur mehetan barnera non afar xuri hark bakailo xuri bat zirudin afar hark fintak amanzio bezala eginaz batera eta bestera zia eta zia zeinen zerbitsupean morrointzapean esklabotasunpean geure jaun maitagarri eta ohoragarriak lan egiten du hobe esatera noren poltsikoetara doaz geuk izerditan botatzen ditugun gainbaliozko orduak eta segundoak kaioak bezala arrainxoaren bila sasisisa dabil lasai eta motel ur ertzetan doinu garratz eta latz eta mikatz batez arrapatuko ote duen moko fin gogorrez gu tortuga motel gizarasoen antzo edo karramarro gisa bilakatu bagaituzte arrantzaleak ordea makinak noiz dinamitez akatuko ditudan arrainxoak gero harkaitz eta ur

## Patri Urkizu

axalez zalabardoen bidez biltze arren aztore hegalaria haitzez haitz eskuineko lohitegian bizitz lohietara daraman euskara lohitsu eta mordoil batez lepaezurreko lohian makurturik burua sartu arte uztarri borobilaz lanpernak almejok izkirak bi donzella bisugu bat laur kraba sabiroi bat pottakar hiru eta pilotaren bila dafernaz daferna saldu nahirik 180gradoko arku bat eginik atanillo dafernetako bi paretetan joko ez duelako tanto eginen ahal du ezta eginen ahal ez arraiopola mekaguendiolabirijida ertzain aztore begi oker gaizto horrek ikusi gaitu ertzainak ikus ertzainak bazetozen jeep azkarretan geure atzetik geure inguruan geuten segika baina oraindik ez gaituk galduak hori sekulan ez gal odol berorik ez gaituk galduak hori ez egin ezak ahal duana azken arnasak ongi xahu uhinen gainera bota burua eta ez harkaitzatarat bai zera pentsamendu gordeena ezar zak gerriko ezpata biluzean sudur eta ahoz lenta eginaz ibaia batetik bestera pasatzen badiagu ea bada bat eta bi eta hiru zapla plun zango eta esku askoz zabal hitzak tratata saltoa ongi neur ezak zeren harkaitzik ukitzen baduk akabo galdurik hago eta han bertan gelditzeko arriskua nedukan zer sentimendu sentitzen dudan lurraren legeak hautsi eta hegan zabalik haizea besarkatuaz eta eskerrik lurraren lege hautsiei beste tiro nardagarri horik bere abiadan arrapa ninduketen baina hura hautsi bezain prest bere pisuz ondoratu dituk balaz hiltzea ez duk gauza eder bat naturaren kontra jokutzen denean sasi naturaren morroitzapean gorputzosoia ezarririk xoko hortan gordeko dugu sakoia sakea eta pilotak zeren ez baita deus gozoagorik ur epeletan edo berotan zimeltzea bezalakorik baino BALNEATORIUS magnotaco on dena AQUININARIUM khuba vel bacigna vel cizterna neronek tirako nizkin bai galtza zikinak arroka tartera eta larru gorrian larru hutsik jainkoak edo hobe esatera geure amak lurrera ekarri ginduztean modu berberean inongo zerketarik gabe uretan itsas ur garbitan maizkur gustoko ur xoragarrietan mainatzea ez ez zait laket ez ere axola handirik ez ttipirik has nadin tiratzen badakin zein xepel dun jendetza hori españaren morale ohorea eta gerla sainduaren oroitzaz eta diotenean literatur kakatsua gehiago ez zikintzeagatik gere gorputzei bi tratamendu ezberdin eman



## Sekulorun Sekulotan

bata dakusagunari eta beste gaizto bat ezin dakusagunari eta beste hirugarrena gauza guztiei amen esateko hor zioek kontua ordea noiz arte irauan urpetik hor zioek kroska eta maizkurren ezten latzak jokoaren bidea erakusten baldin badik ez litzake bide xarra izanen gero beste jokabide bat hartze arren baina hori ez zaigu interesko noiz ordea urgainera azaldu horregatik hau idaztea molde hau hitzen irteera hau bata bestearen gibeletik noski zenbagarren maitale ote haizen buruzagi eta aitzindari baten beharra eta isatzeko lurrikara dena datorren gisa eta era berean sistimarik gabe eta soinuez nabarmenago oraindik hitzez eta egiturez pentsamendu baten automatizismo gabeziez ekintzen eta haragien kilikatze eta larrutze gordina zer gertatu ote den plazan gaur goizean bale saltzaile eta kontramaestrearen artean balak eta zulo handiak barrengo biriketan ezezezen zergatiarik gabe hi hai hi leloen ez hi izanen haiz lehen noski hori dazagut makina eta lana lana eta makina makina eta lana falces et martellum ihitaia eta mailua zeren ene nobela lelo hau ez da ez bat ez bi ez mailu ez oihi ez deus agian norbaiti tripako min edo nobedade eginen zaiolakoan bahago ere zeren naturaren legedi zuzenaren kontra habil eta nahasketari zenbait segitzen baldin badiak zeren gure famadun idazle hark zioen erleek ere hautatzen dute bere agintaria eta erreguea zeina handiroski errespetatzen zervitatzen eta ohoratzen baiture hargatik filosofoek erran zuten opus naturae esse opus intelligentiae naturalezaren obra zuhurtziaren obra dela baina nori eska dezake horrelakorik eguzkiaren adoratzaile eta adamen seme prelojiko bati zein jakintsuek berak ziotenez hau da eta ez beste euskaldun gehienek izpiritu puroa bihotzarekin pentsatzea ez dogmakeririk ez bostgarren edo seigarren manamenturik anarkismoen fede zuten musulari segitzaile purrukatuak blablabla eta zer da idazte hori mahain gainean pulso bat botatzea ezik hainbat gauza desegoki eta ulergaitz idazti batean okalondoa mahain gainean berripini zuen gizarasoak hori hire aita halahaina zein erraz erabiltzen ditten hitzak honek eskua kokotz itsusi horren kontra jarriaz eta sensazio arrotz pila baten espresatu nahirik betiko hitz mordo jakinak usu horietan esaten direnak agian koska simple

## Patri Urkizu

baten malkoa besterik ez zen euskaldun eta fededun igelandiako herrixkan  
ajedrezaren nagusi eta jakitate eta zuhurtziak oro bere barnean adimenduaren  
koloretasunak makina elektronika baten lumeroa neurtuz zeinen ohoretan  
koblakari famatuak bertsoetan ziharzuen soin zabal zalhu xapeldun euskaldun  
eta fededun hainbat politika pilota dantza kantika ez ahanzten ditudan  
dakizkidan kanta likits guti horik misala leitzen mesa nagusira joaten eta  
polsikotan hek bezain xanpon pila edukitzen ez xahutzen ongi kontzen  
demokrata herri baten egiten zaintzen amen elena alargundu zenerako  
grekatarrak hiri haunitzez jabetu ziren ta nahi dudanean xisturik jo eta gizon  
frango joaten zitzaizkion amore haragizkoez atsedena hartzera ez ordea  
antzinako perikles herodes katon mao eta herkulesen modura zeinen buztanek  
bistan zegoen zuhaitzetako fruituak botatzen zituztela ukitu bezain laister zeren  
fanderiako pentsuak ez merkeenak bai onenak bazkaren medioz izaten dira  
ganadu on eta indartsuak eta nola jakin zezakean baserritar jakintsu hark burutsu  
izanik ere ez ahal haiz ere arrantzale tartaro baten seme edo prolegomenotar  
baten ezten erdoitutarik jaiotze haiz marika marti debre xe gebara eta ganboatarren  
eta bergaratarren mao bakailoaren fideltasunaren eta leialtasunaren izenean jo  
zuten bada bide hartarik eta hiri hika hitz borobilak botatzeko inor ez  
bildurtzeko eta heien amona zaharrak eta sakristiako serorak eskandalizatzeke  
heren aulki xatarretarik jalgirik kaka kale erdian eginaz bezala gero galtzak  
prestatzen zizkion oroitza gisa eta idurien petan mila argi ezberdin hyppy hyppy  
helikoptero bat har eta gaizteiztik barrena orduñako eta ambotoko sorginekin  
mintzatu ondoren eta oro hau hire gogoko ez izan arren han bertan hatzemaileei  
ez zitzaien zail tranpa bat bazen parisen jalki dira aberatsen kontra parisen jalgi  
dira frantzia orogatik eta boltxebiketarrak indartzen hasi zirenean indar faxistek  
sekulan baino gogorrago hasi ziren hedatzen hemen eta han handik honat bere  
propaganda nahaskagarri hori iraultzaren desegiteko bake faltsua lortze arren  
baina ene lagunak dio benetan daramagun borroka hau guk langile iraultzaileok  
izen ohoragarriarik ez zuten merezi ikasle xepel eta saldu batzu ezpaiziren

## Sekulorun Sekulotan

harremanen egoera borroka bortxa non personak eta ilusioak ideiak eta proiektuak egia bihurturik lanen medioz eta segurantzaz eta noizpait desegitearen ondorion honetan baina iraultza sekulan bukatuko ez delako eta bildurtu gabe egungo trajiko deritzen duten ekintzaz alderantziz kontrairaultzaren indarrak ondo sakonduaz geure indarrak bortiztu eta lotu arren maisua isildu zen jaulgi zen norbait eta esan zuen badirudi hitz baten garbitzeko premian aurkitzen gerela eta hau ene uste apalez FORTUNA da hitz hori asmatua izatu da gizonen ignorantzia edo ezkajina dela kausa zeren ezpaitakizkitez gauzen etorkiak baina orain zientzia dugularik medio sozialismo matematiko baten zertzera natorkizue baina ez ahal ginen gelditu bestea zela otso besteentzat besteak direla gizonaren ifernu eta on guztiak badaramatela bere ifernu propioa barnean arimaren zerraila eta krisketa on baten faltan aurkitzen haiz gizontto ze zelai bat ongi kontua dagoenean ez zaio belar gaiztorik hazitzen ez butroa hegaldunik ausartzen eta landare dotore erdi janak gelditzen zeren herrian zehar dabiltzazten taldeak halahaina badakin hori nola konpotzen diren elkarrekila eta arantxa eta ines hitualako ene salbazioa a zer gozamina sentitu huan haragi prejitua eta haragi egosia haragi errea arragoan eta ehieran eta errotapeko haragi minberatuak egun mindura baten adieraztera datorkiguna zibil harien gurdipean zangopean porrapean ostikopean zemepean likitskeripean samurtasunustelpean joetajo kankaetakanka esne tantoak galdurik eta letxe xar bat haren ordezen direnean zigortzen direnean zanpatzen direnean memento batez bere egoera arruntara berriro beste palaz zigorturik ea bada berriro abiada gogorrago batez ihaz ere horrexegatik utzi ninduan tankera honetako lelokeriak esateagatik kea ala lainoak daramanez galdatu gabe hemendik pasatzerakoan lasaiago eta urtzi jaunari ongi behatu ez sarats negartiak urki lirainak pinudiaren gordintasun eta iratzien usain hezea humua erreginak hilazkizorori zoroastroren galdeka hasi zitzaionean jainkoa hil zela igarle famatu hark geuri adieraztera jetsi zenean egon adi neska nire alboan hire matas eta hile luzexta xoragarri xarmanta dasta dezan beste era batera askoz ere

## Patri Urkizu

probetxagarriago izanen litzake sorgin laino eta hilazkiz ornituta zegoen zoroastro solo in sore, baboa benetazko baserriaren beharrak makinak FUNCOR XEI RANXERSSA ditun eta paperetako bertso berri eta zahar horik indarrak bortxatu gabe bestela joanen hintzen hi ere leize zuloetara berriro ispilu miragarrien dizdiz hura hautsiko zen eta sasoiaren indarrak ondo neurtu ondoren beharrezko zidurizaion urtainen jokoaz liluraturik errabiaturik asperturik habil laisterka haren bizkar zabalak eta adimen herstuak ez zeren bere eskuinezker dantzatzeko gauza kepa hatornigana banohakin laket ahal naun gustoko ahal naun hori hire kontuak ditun niri bost axola ea martxa pixkat laisterragoa daramaan hire abiadan total horren bidez galduak gaituk motel ezta kafka joyce ta robbegrilleten lagunik zeharo pasatuak edo bigarren endanako direla eta errealismoaren eta klasikoaren jaiotza ez erromantikoena behar diagula esku gogorrez zeren presondegiko eta gerlako gosea ezin pairatu ditzazkegun sufrimenduak gauzez agertzen dira mendiko bordak hairfrench hartan bortak eta leihoak karraska eta ene uste apalez FORTUNA da hitz hori asmatua izatu da gizonen ignorantzia edo ezkajina dela kausa zeren ezpaitakizkitez gauzen etorkiak baina orain zientzia dugularik medio sozialismo matematiko baten zertzera natorkizue baina ez ahal ginen gelditu bestea zela otso besteentzat besteak direla gizonaren ifernu eta on guztiak badaramatela bere ifernu propioa barnean arimaren zerraila eta krisketa on baten faltan aurkitzen haiz gizontto ze zelai bat ongi kontua dagoenean ez zaio belar gaiztorik hazitzen ez butroe hegaldunik ausartzen eta landare dotore erdi janak gelditzen zeren herrian zehar dabilzazten taldeak halahaina badakin hori nola konpotzen diren elkarrekila eta arantxa eta ines hitualako ene salbazioa a zer gozamina sentitu huan haragi prejitua eta haragi egosia haragi errea arragoan ete ehieran eta errotapeko haragi minberatuak egun mindura baten adieraztera datorkiguna zibil harien gurdipean zangopean porrapean ostikopean zemepean likitskeripean samurtasunustelpean joetajo kankaetakanka esne tantoak galdurik eta letxe xar bat haren orde z direnean zigortzen direnean zanpatzen direnean

## Sekulorun Sekulotan

memento batez bere egoera arruntara berriro beste palaz zigorturik ea bada berriro abiada gogorrago batez ihaz ere horrexegatik utzi ninduan tankera honetako lelokeriak esateagatik kea ala lainoak daramanez galdatu gabe hemendik pasatzerakoan lasaiago eta urtzi jaunari ongi behatu ez sarats negartiak urki lirainak pinudiaren gordintasun eta iratzien usain hezea humua erreginak hilazkizorori zoroastroren galdeka hasi zitzaionean jainkoa hil zela igarle famatu hark geuri adieraztera jetsi zenean egon adi neska nire alboan hire matas eta hile luzexta xoragarri xarmanta dasta dezan beste era batera askoz ere probetxagarriago izanen litzake sorgin laino eta hilazkiz ornituta zegoen zorozeroastro solo in soro baboa benetazko baserriaren beharrak makinak FUNCOR XEI RANXERSSA ditun eta paperetako bertso berri eta zahar horik indarraz bortxatu gabe bestela joanen hintzen hi ere leize zuloetara berriro ispilu miragarrien dizdiz hura hautsiko zen eta sasoiaren indarrak ondo neurtu ondoren beharrezko ziduritzai on urtainen jokoaz liluraturik errabiaturik asperturik habil laisterka haren bizkar zabalak eta adimen herstuak ez ziren bere eskuinezker dantzatzeko gauza kepa hatornigana banohakin laket ahal naun gustoko ahal naun hori hire kontuak ditun niri bost axola ea martxa pixkat laisterragoa daramaan hire abidan total horren bidez galduak gaituk motel ezta kafka joyce ta robbegrilleten lagunik zeharo pasatuak edo bigarren endanako direla eta errealismoaren eta klasikoaren jaiotza ez erremantikoena behar diagula esku gogorrez zeren presondegiko eta gerlako gosea ezin pairatu ditzazkegun sufrimenduak gauez agertzen dira mendiko bordak hairfrench hartan bortak eta leihoak karraska eta aizearen negar bildurgarriak ernarazten digu eta hiruterdietan ibilaldia zakur beltzaren arnas beroa isterretan zigizaga dirauen bitartean igelak zanpatuz eta boa galant batzu lepo eta gorputz bizkar eta zangoetarik gorapilatuta arnas ezin harturik birrikak hautsirik eta zital alena atzetik haizkora bere gela utzirik bahuan ustel usai zerion usteak gehienetan erdia ustel pilpil hori ez duk bidenabar gabiltzan ordi lizunkeriz beterikako fantasmarien irudi maitagarriak antonioni fellini visconti eta joxeparen

## Patri Urkizu

buruhauste majikoen dekadenzia burgesa ziraba zangopetik belaunetik gora irristalatzen biska pehats tzaile bezala orain diska eta xalapartak jo bezate bortizki kanpaiaren oihartzuna entzun dezagun eta lelozkeriaren besopean eror ez dadin beha badatozi izerditan niagok laku herstu honetan ez dezakeat minutu bat gehiago ere iraun itxaron ezak beste zerbait leher adi baina hoa ospa hemendik hilunpetan ez dizue ikusiko iratze tartean bi pita galantak xit adorabliak lastantzen zer manerak zer mugimendu estraino eskopeta serratuaren oihua haizkora metralleta josteko makina laister eginen dugu bonba atomikea aurrerantzean wyski&soda bahoia kijote jauna bezala santagedako astoaren bila burutik zeharo izorraturik ipurditik ez hago sano baina nora datorkigu orain gure mikel zintzoa honerako balitz bere irteera bere asmoak behelainoak jaten dizkik eta egunoro etxeratzen haizenean pentsatzen habil geure arteko zera guzti hau ez dela jator gau arazetako amets agorren eta basamortuko ideien atzetik iso adi haurra edukiagatik bihotz braboa hel jako odol sendoa baratzuriz sendatutako zauria egurats berdearen eta oletako ke hilunez orniturik aizeko dardar hitsaren biluztasunagatik xorionaren isatzetik zebiltzen aingeru xarmant hariak ez hinduten behar bezala ezagutu heltzen zirenean xartelak eta bazihoazen bere bidetik herensuge antzo mehatza zulotan sartzeko baimena eman zutenean noski eskatu gabe ez zizuten ogirik eman ongi irabazia duk hire xamar hori xamarrabi zangurro eta shangurro bi eta ondarrabi ondar obi ondar bat zeren ondarrabikokanpandorreankarramarruakdantzan shangurroak saltzan dantzan plazan solasan binbilibonbolo nor da lo akerra frantzian balego akerrak kanta idiak dantza ahuntzak danbolina joez baitago ene asmotan oraingoz eta ere organizazioaren pentsamenduetan lotkera horrelakorik batipat iraultza jator baten erraminten jabe daudenek teoria eta usuzko diren liburu xarmanteetan ama hil zait lanak ittota herenegun aita fabrikean grua batek mila puzketan hautsi zuen atzo anaia porrapean zibilek zigorturik zeramaten arreba ehortzi dute larunbat arratsaldeko zazpiretan frustrazio mila liluragarri den amaia egunetik egunera borroka zailago jartzen ari

## **Sekulorun Sekulotan**

zaigulako denek ala inorrek askaturen dutelako herri hau gabarroi zaharra mendabalak eramaten duenean bezala olatuak hautsiaz muellearen kontra eta itsasperatzeko zorian dabilen gabiltzen denok pentsamenduen zerraila zuzenak eta zehatzak manatzen gaituelako hori betetzera ez honela edo horrela iraultzaz baizik...

IV

**I**SO zomorroak pinuen hegaletan dabilta ene muinbarnetan ateko krisketan eta zakurraren zaunkada tristean ez dakit zerik eta zeren udierazle ditudan fletxa eta haizkoren premia banuke enegandik aldentzen odol jario honetarik libratzeko lumaz eta hegalumaz xirikatuz zebilen txori digante hura zeure begietan ene kontukontaketa ispilatzen zen bitartean harrobi pean egun hamazazpi gizonak aurkitu dutela amalurraren babesaren honen aspergarritasunaren ametsa experimentalismo garestia nancyren ister garestiak izar ederrenetako oskorri garestia apolo hemeretzigarren igotze garestia eta inutila apaizen teila errespetagarria arnoz beterik zedukan gorputza bertako zain eta irudi osoak ibai gorrizko itxuran erriojako mapa dotorean bihotz liberalaren ebakiz lehertuz pumpum urodol arno kolorearen jariotasun amaigabea hainbat jende oste era mosteren berriketan marmar tontoak zekiena geure ekintzen baliotasun benetazkoaren erraminta era lanabes ditugun euskara eta teoriak lehen orritik ateratakoak geroa lasai begiraturik ez lagun ez mirabe ez gaituzulako besteentzat garrantzizko lirakeen babaloren xoxoloen deuseztera blablaba diskurso paregabearen balioa non indioen asesinoek eta haren asaba zaharrek zioten when in the course of human events it becomes necessary for one people to dissolve the political bands which have connected them which another and to assume among the powers of the earth the separate and equal station to which the laws of Nature and of Natures God entitle them a decent respect to the oponions of mankind requires that they should declare the causes which impel them to the separation... we hold theste truths to be self evident



## Sekulorun Sekulotan

that all men are created equal life liberty era hapyness ene mendiko bordan dabilizan hiru xakurren izenak dira lasai adi xinoetara joka dezagun galduko dun oraingoan nork ordaintzen du edari bixigarri ez dik deus ere merezi hik era nik eta hark hari bere osabak hura berbera esaterakoan alegia pan sex revolution haren petik kale eginen zela ez zela gauzaserioa haren ausardi era pattalkeriaz liluratua hengoela ezpain parean jartzen zizkian deabruzko musu jolasti harik nongo teknikak erakutsitako hizkuntza ezagunean mila legoa ibilita bero mihigaina eta mihibehea ziztaturik zeharo lehortu arteraino amuarrainez txulutxoko ur garbietan dastaturik ieroglifiko estraino hari eskuzkiribu hartan hilen liburuaren bostgarren kapituluan heptre era tamera printzeei kenduko dizkiegulako zakurraren medioz eta katuaren keinuz astoaren etxedonean ezteak era birikak atzazkalak eta begininiak zulobeltz hartan besten partez askatasunaren irudia jartzeko paretetan pisa lasai egiteko dekretua emanen den eguna izerdia ahantziko den egunean sabeleko minak sendatzeko kamamilorik beharko eztenean ops jaunaren tronpeta bildurgarria erosiko denean otso handiari bere atzaparrak moztean bizarrero hiledun bigotedun ororen ekintzak batutzean sugeen xistu gaiztoa ahultzean era gerlarien sabelak odolez elikatzea zanpainik gabe gauak igaroko direnean dietak nahi haina izanen direnean nahiak neurritz izanen direnean akerrabadesemeen boza entzutean gose obligatorioa sufritzea pairatzea eta iragaitea derrigorrezko izanen eztenean manifestoak eta manifestazioak libro direnen egunean jira eta bira egin diagn leninetaestalin pinpanpin azkenean idiarena egiteko erritmoa azkartzen doa neska era mutilaren kinuak ziren elktrikoago jartzen sususu zazaza musu gorri ezpain ero bular zoro musika bitartean musuaren rekorra hautsiz tarzan eta hilegorrizko zenizienta baten iduri komertziala holywoodeko star sagaratu bat barbarella bikini xit labur batez zipliztinak pantaila euskalneska gehienek gona oso luze zerabilkiten denboretan ideien arauz kontra kontrabajoa lanez zebilen gero eta presa handiagorekin eta memento batean jende oro hasi zen zilipurdika dantzan delirium tremensa batean askatasuna aska ta naga xunga xun ga ka tan

## Patri Urkizu

ga lalala haragia ehieran sasi jainkoak diskutitzen zuten bizkitartean heren prolematika insolublea quand les riches se font la guerre ces sont les pauvres qui meurent esklabotasunaren kateak bi mila urte igarota guti gora behera erromako errepublika zenez geroztik hogeitaz mende hamazazpi hejiraz geroztik onuk eta hark izeudaturiko gizon eskubideen urtean parisen herria kalera ateraz zen egunean eta mendebaldeko erresuma ttipi eta erori batean beste bi handiagoen hitparadepean bizi dena hatxegaz eta atxegabe beltz edo zuri drogazale eta misalzale aldizkari haunitzeko futboleko lehendakari atletik leoi ospetsuen begiradapean odolfenol kolore goiko lore free gris ko lore aluita joetajo hogeitabatetahogeiabi gaigaigai gogortasuna arintasuna eta indarra eta kakaputza ormak artezitzen dooz ole tooroo zertarakotasunaren esne beroa laket zaidalako ez gorri eta ez urdin baizik goizoro esnekatariak dakarren esne epela ez daferna zuloetan ematen duten ostie zikin gurelesasa askatasunaren utopia eta zientziatik praxisara sozio eta soziyûntzako bakarrik erakarritako deia besarkada samurraz euskadiko leizezulo paregabean non saguak ziren nagusi bere zulotegietan ere puroak dira neska haren bi begi xarmantak ene maitea zeru kolore miresgarria zure begiek erotzen naute berotzen naute dirdir ezitia titi ezitia ajente kimikoen funzionaltasuna enparantza berriaren eskopeta metralleta palestina israel ira kanboyako ganbaretan bonba eta bonbila pila atomikea erdietsi dugulako galgalgal entzun adiskide zintzoa gaurko gazteriaren zitaltasunean bada zenbait lore berezi drogatu ez dena kitarra jotzen dakiena arpa jotzen ere baitaki bai bai zirela denborak ez hauk bezalakoak gazte sasoidun eta libertsiyu sanoak pilota lekuan goiz eta arratsalde ta dantzan suelto hilunabarrean ez orain bezala aldrebesketi hutsetan dihardutela hori bistan zegoek baina nik esan nahi diatena beste hau duk batasuna dela eta salgai dauden blablabla egia dun bai hori lortuko bagenu bildur handirik ez genikek ezin haiz egun kalera irten ohorea etabar kaska eta arra bi marru marruketan jokatu dugu aski laineza eta lotsadutenen yeye alen horiek nortasunik gabeko usuario garbi gabeko eta okerreana dena ezin zaiela deus esan aspaldidanik heren amets goxo

## Sekulorun Sekulotan

zoro buru kaskarinetik irten dezaten guk geuk baikenuela ikasi legedi behar bezalakoa ez likitskerizko lardasketetan kale erdian daferna zulotan bakero zikin herstu batzuk prakaturik ipurdi ezurak nabarmentzen zaielarik blusa transparente batez kolore gorri eta andereen antzo bordado xatar batzuk dituztelarik eta neskatilei bular puntak alkandora botoiz gabeko baten erditik agertzen zaielarik kenediren alarguna epopeya maitea eta penelopek sagarrak maite dituenaz gero azokan saltzen ez diren sagar erreginak pelotak egiteko metodorik hobeena hau da sagu zahar bat har sartagin batean erre haltzak ez du bihotzik ezkurak eztu ikarik ez gaztanberak ezurrik eta gelditzen den kiski kixmi gogorra odola metraleta benetan kapelu sagaratuaren sardin zaharraren adarrak atxeterrek darabilkiten sikologi isila saguzaharrak irrintzina botatzen dutenean eta bere radaren medioz borobiltasunezko ondaz atletiken irrintzina borobil hura zelai berdean entzun zena dantzudanean uje zi kezabe zeór jumeldia komoadixokeseapexia joan eta peru gona laburrak igo euria goian behean ari da behetik gora zipliztinak hegoaldetik hegoaizea ifarretik mendebala lehertilari bikainen galtzerdi odoltatuak erresumaren zehar errotak hartzean bere ardatz pean erdibitzean potemkiren gisa itsasontziaren legedi betikoa mailaz mailadi luze hartan eskallera izugarri hartan zaldiak eta amak bere humeen erdibitzea fusilen mehatsa pean eroskorren begi pean ez tul alienatu erioreen zurrumbilo gaiztoz ehizera irten zenerako ehiztariak badoaz bagoaz erbien bila xita xanxangorri milarru hegaberak eta ratata tiroaren hotsa entzun bezain laister ihesean bandada ederrean elsa martinelli eta elsa schelen bere alabaren gutizi eta gupida ezin beteak pebele gordinen ezintasunez zulobeltza bat eginik eta errekarren ur jario fina behatz haunitzek sudurretako pilotak moskuko irratiak dioenean donostiako hirian luteranoak sartu direla eta beste sekta denak gordetzen saiatzen ari direla gaiztoek jabetzen ari direla afrikako mairu gerlari drogadiktu merks peru urtain era besteek dopatzen dira ta hasish eta beste haunitz ezpezieria arrotzen bidez xertoiz pulpa del tamarindo arnoz eta wyskiz potrohandisagastibeltzez ginrosemariez castell obiancoz oscar

## Patri Urkizu

manhattanaz derby saint jamesez sir motrikoz ginferrerez carlos quintoz josean entzun ezak licor 43z jerez ez liqueurs ez white worsez chivasez etiqueta beltzaz azpiliketaz aranaz campobeltzez fantaz kokakolaz trinaranjuz ss schussez sagardoaz morilesez queene gora anez osbornez euskadi ama anismoskatelzinanoronkilawakubaaskatutez...

orain dela eztakit zenbait urte dotrinara joaten hasi nintzenean ez zen izan urtearen buruan iganderik joan ez nintzenik kristau izatea zerda kristau izatea da makinaren morrontzan lot akio bada esaten zion amak deus jakitekotan salbea zekien ongi samar zenbait pundutan marmarez disimulatzen zuen hitzen klartasun eza eta agur erregina ama errukiorra gure bizi gozo eta itxaropena agur kantatzen segituko du oraindik neska zahar baten betaurre peko aho xistutsuak eskoletara bidali zibilizazioaren aurrerapenak sufri ditzan eta armak hartze arren ea badagure bitarteko hori itzul itzatzu hostias et preces gloriapatrietfilio libera me domine zen kantikarik ederrena de morte aeterna et de tentatione burghesa amen guk behar izpiritual hainbeste dugunok ifernuaren suaz oroiturik telebisioan ostikalariak jokutzen ari direla eta eni zer axola bost axola hari gosez hiltzen bada ostikoz badakite beraz bizi daitezke ostikoka zer arraio pasatutzen zaik mutiko zion abadeak preilekumea irakurtzen ari zen gutun bat ton église est une putain elle vend ses faveurs aux riches eta makina bat eleiza behin auzoko mikelekin jokutzen ari hintzela inguratu zitzaizuen ederki ederki lizunkiro esanaz engainatu nahirik ostikozko zelai, liluragarri haunitz omen chopin eta albeniz kantari xinaurriak pianoaren gainean dantzari patroien poltsikoak gutiziaz beterik ostiasalkaldero badelako demokrazia izeneko soberegi eta noski erreleboetan yankitarrak beltzak lekuko ziren gareile zoto hilun epel batean datorren urtean promozionatuko duelako urrengo dibisiora oriok ziaboga lehen hartu zuenean bigarren getari eta hirugarren donibane ez zuen lortzen inolaz ere pake saindurik zoroastroren bulak delirium tremens hartan basajaunaren kontseiluz denei eskubide berdintsuak eskaini zizkien to

## Sekulorun Sekulotan

kolpu hau jo zenion giristinorik ez zegoelako ganbaran ez dit nahi gobernatzeko eta nik segitzotzat korrientia ez dago printziperik ezta printxesarik kaka ez duena egiten ormak artezitzen doaz kinkon lurrera erortzen hasi da ontziak ura dagi arrantzaleen sareak zuloz beterik daude eta tiburoi xatar batek irentsiko hau laister mostradorean banderila zikin asko ziagoek makinaren argiak TILT markatu dute sartu putzura dena jirabiraka dabil diskak dehadarka segitzen du zertarako ipurdia bustitzeko no me jodas makina argiz eta doinuz josten da hasieran itzala zen errege gero argia jaio zenean bertsolaritzan hasi zitzaizkigun hortzik gabeko agure zahar zenbait gizaldi zaharreko agureak gaur jakin diat bihar hilen nautela bigarren ziboga pasatutzean holaxeko premonizione antzekoa baitut ez fabriketako saria eztuk izanen zoroastrorentzat guretzat baizik ontziak plomajinez ongi tinta uhinak irents ez dezaten laku maitagarri hartarik igarotzean kanalaren ertz puntatik isilki oparo oparo zakurrak esna ez daitezen eta sala ez dezaten segi segi makina eta lana eskubideak zergak ete proletalgoaren agintea ikusiren diagu ifernutik altxatzen kaiapeko txatarrezko piramidetik zizare potoa ene ordularia ondo jarri ahal duk kokili jauna ez dut ikasi nahi ez beste katon berririk mugi bihar dinagu bustinagaz egin diren tunelak bertarik ihes dezaten beste bizitza berri batera armak hartzera urte horretan botazioetan washingtonen baiezkoa hartuko dute beltzak hire etxera azalduko naun kafetxo bero bat hartzera hiru mila zerri hilen dinagu metrailetan tiroz eta iustiziz ez marmar egin kinkon gizarasoa eleiz arkupetan estatuak oro baturik marruz eta malkoz belaunikaturik erakutsiarazi zidaten giristino bidea noizpait santagedako kanta ere bai sarats negartiak ehortziren haute hisopoaren ur tanta bedeinkatuak bustiren hau, haurra iso adi eta jar ezak urrengo diska...

### V

**I**NORK baotezekien ikasle hark idazten zituela ibilaldi estraino batzu egunkari arrotz bat bere buruz asmatuak ala gertaturikako pasaldiak ote ziren hor zioz bada kroska irakurle bizkorarentzat ordea ezta izanen gaitz ez ere zail fantasiarik eta egirik bereizten uztailaren hamaseigarrena karnetaren bila hirira igo naiz ajeñtiak ugari nonnahi norbait inportantea datorrela dirudi ajeñtiaz etzedukatela nire dokumentorik esan didate agian etxean ahantzia utzi ote dut kazaka zaharran ote auskalo liburu baten barnean dagoen edo poltsiko baten barnean azkenean dena arreglatu da motxila bizkar gainean daramat eta ez diat gogorik berriz etxeratzeko ineseekin gelditu naiz azken agurra emateko etapak ondo neurtu behar dizkiat bestela lehen egunetik lehertuta ez duk deus ere aurreratuko atzo gauez ospin eta urhotzez garbituriko ister erreak berriz kiskaltzeko arriskua zenuke dudana nago orain organizazio eskasegiz ez ote nauzuen abiatzen banoa abiada izugarritz ezpata biluzeak pasatzen ditu berebilak zuhaitzak etxeak eta zelaiak zer kulpa ote dute nere gurasoek horrelako seme sustrairik gabeko bat sortu bazaie marta agertu zait agur ematera badirudi orain minberago nauela atzo bere etxe inguruko maldan eta zotoan ezinezko atmosfera espergarri hartan lelokeri hainbat esaten nion ez dudala nahi berriz horrelako alfer lanetan denborik galdu nahi neskatzaxarmant eta liratekin denbora galtzea baita gehienetan baina nola sakondu ezagutza benetazko batean badirudi elkar ezagutze horrek eskatzen duela aitzinatze bakoitzean haragi muinaren printzak tiratzea axaletik harria larrutzea lazki bat bere buruari galdetzen saiatzen da ea ez ote diren buruhauste hauk oro

## Sekulorun Sekulotan

beti denbora alferrik galtzea alferrikako lanak orain lana egitera behartua aurkituko nauk eta ez gurasoen pean jakinen banuke ezin litzakean metodorik egokien eta hobeena edonoren egoerarekin borroka leialki eta aurrera emateko modua betiko berbaldi hitz kezka eta arrazoin gabeko berbaldi eta begirada zoroetan denbora galdu gabe eta gero gainera hor gelditzen dira harreman sexualak nola antolatu musuka hasi nork hasi zer egin auto stop egitea ez da gauza erraza neskontzat edo militar jantzirik daudentzat edo apez gonaluzeentzat agian ez ordea gazte itsusi zarpail batentzat dotrinan sarturik dituzun grina gaiztoak menperatu behar lotsa galdu ezertarako balio ez duen lotsa hori hire ezerezaren ahalkeaz ahantz eta lanean gogor has eta jar ohi den bezala fabriketarik jendetza ugaria irten ari da ximinietatik ke beltzek oraindik indar guttiko eguzkia lainotzen dute ea bada pentsamendutan daduzkan herri eta paraje berri horik oraino ezezagun dudan eguzki gizon eta lur garbiago horien berri hartzen dudan laister aitaketamak trenez abiatzeko kontseilatu naute baina zer aurki dezakeat trenetan betiko egoera berdina betiko aurpegi berdina usai eta interbentore aluak eta nik nabi dudana abentura denez geroz pelikuletan hainbat maitatutako egoera ezberdinak tunel hilun hartan lehen egunean gertatutakoa ez da kontatzeko gogorra da ordea hatz puntaren dialektika pobrez baliatzea behin eta berriz zein indar gutti duen besteen arima karitatetsua mugitzeko bihotza suspertzeko bizimodu librea non besteen menean bahago orain ere euts akiok atz gizaraso herri here horretan eztuk erraza hori bai ezetz herriko botikario berria gelditu da eta mugaraino berriketan goaz hau zer arroputz ustel galanta urte pare batean herriaren jabe egin nahi dena bederatzi minutu aski ukan ditut spezimen hau klasifikatzeko kapra hispanica ornamentisima gisa hainbat jakitate eta bizitz eder baitu hainbat seme eder paguzko kolejiorat bidaltzen ditudanak kontakontari dago kotxearen ezpata biluzia mendiko jirabiretan gorpilen garrasia ete karrozeri guziaren soinuen tartean azeleradorea beti toperaino zanpatuaz ehunetik gora goazela eta laister edozein mementotan amiltegira eroriko garelakoan nola hain atleta hain tipo

## Patri Urkizu

onekoa munduan ziren birjin politenak eta hizkuntza askotariko alabekin amodioaren ikaskintzan blablabla sentimendu hain banalez besteen liluratzean ote dago zenbaiten helburua ene ahuleziaren kexua mugarri dadila inork ez dezala jakin ene ihes modu honetan erabili ditudan pausoak beno muga oinez pasatu dut ez didate kasu egin frontierlariek ikusten baizuten stopista bat gehiago nintzela eguna igaro da gaueko hamaikaterdiak dira mapak dakarrenez añaamendiak batetik bestera iragan ditut lasai nago libro nekaturia eserita parke bateko aulkian goseak nago herri haunitz irentsi dizkiat begiekin paisajeaz enpatxaturia nago ez diat asimilatu behar bezala ez nauk ia oroitzen leku denetaz baina bada puntu interesgarri bat hemen bakoitza bere irudipena garbi agertzen saiatzen da ez lehen han bezala lagunartean halako giro axalegizkoan ez genian benetan agertzen pentsatzen duguna atsotitzaren egitatea ez diat konprobatu atzerri otserritaz ari nauzue ez zeren oraindano lagundu besterik ez didate egin neurri ttipiz egia baina hala ere laguntza eskertzekoa zazpi aldiz aldatu naiz berebileraz zazpi izpirituzko esperientzia berriak hauk ordea ez ditut agertuko hemen zeren nekaturia samarra nago kanping batera noa zelai berde baten batera lurrean zakua jarri ni nerau barrura sartu eta buruko motxila jar eta amets egin aingeruekin herritik urrun egun fazaradiako herrixkan jendea oro iratzarriko da berantuago zeren ez da lantegiko sirenen orrurik entzunen muga iragaitean bihotza taupadaka hasi da eta zimiko bat eman dit lan bila joan hintzenez noren partez hator galdetu zidaten hemen dituzu nire kredenzialak montekarloko ruletan ebatsi ondoren mila libera bapote tipi batez afrikara abiatu hantxe errege beltz baten alaba seduzitu ondoren antxintxika ospa egin beharra ukan huen baina lot akigun harira inork ez du sinesten egun kixoteren nobelarik eta horregatik diot bidean jartzerakoan abenturak pairatzeko asmotan munduko okerrak zuzentzeko asmorik gabe oligarkia monopolisten uzku zuloa xupatzen hasi haiz bertan jaiotako langile emigrantea zein ere esplotaturik eta zanpaturik bizi baita hamabi orduz eta zeinen gainbalioak ere gizontzen dute nagusiaren faltrika futbola eta kinielak integratzeko modu bakarria duelarik



## Sekulorun Sekulotan

karreteran zortzi ordu pasatuta gero sasideslurratu batek hartu ninduen ez zen herritik at ihesi joan lanik ez zuelako edo eta bere ideia politikoengatik baizik EDERTIaren bideak segitze arren bere herri pobreak aspertzen zelako me aburriamuchisimo eta borrela famak deitu zioenean atera gertuta aurkitu zuen inongo loturik gabe autopistaren eskalektrisan zehar goaz ezpata biluzea aurrera hiriko gauargiak biztu dira muino loretsu eta aberats bateko etxe handi batetara cassius clay eta pettersonen arte frisko urgaineko kale nagusian hamaikagarren lumeroan lehen bizitzan ponce de leon nizan parisen londresen eta newyorken esoteriko ezpoziziorik ikusi nahi duenak eta xabier dominikoa editorial baten suge farfailya eta erromako sergio guerrarekin sarrailhen eta kaliforniako artzainen modura bizimodu latzen ihespide bezala ciaren zerbitzari ttipi estandarizazioaren indarrez eragindurik atzeko partean ostiko bat hartu bainuen edertiaren eta famaren eta edertasunaren etxadonetik jaurti nindutenez gero harien pozoin gaiztoetarik askatuez geroz paraje desertuetan karretera ertzean erorita ventimigliako geltokian oraintxe bertan abuztuko hemezortzian arratsaldeko zazpiretan irten gara trenez kitarrak kantatzen du amerikanoz ecco signori birra cocacola gelati eta honela batikanoko harritegi arteraino bakardadearen legeaz zaratatsu eta builoso diren italdarren artean l'occasione e calva azeriaren hile urdinaz asturu gaitzaren zerbitzupuan erlijioaren politikak eraturikako sorginkeri famatuak kepa handiaren enparantza amaigabekoan urbi et orbi gaur etruskoen erresuman izan gara heien hilobi zaharrak ikusten bazen ienderik bai eta ere neska parfaite bat zelai zabalean garia erdi mozturik zegoen txabolattipi baten barnera sartu gara eta han eskailera batzu jetsita freskofresko bi mila urte baino gehiago dituzten margo bizi batzu inperio baten dekadentzizko jolasak crassi etruschiren tripaundi lodien jokatzera buon giorno professore kanpainako mahastizainak eskeintzen dizkigu lapurrak lurpean aurkitzen dituzten edontzi margotuak talaiatik itsasoa dakuskegu eguzkiak kiskaltzen dago bertsolarien gisa hasi ziren artzainak kantari bertsoasmaketan prima di tutti ai pastori xinhaurriak bere egiturak sortzeko lan asko dagite

## **Patri Urkizu**

politikaren bide eta bideskak joan etorriak zail dira ere ez dakienarentzat zergatikakoak aztertzen lan komunala egiten denean hainbat eragozpen sortzen baitira zenbait kate eta loturen haustea ez baita oso erraz gatibua norik libratuko eta oro hori nola den jakin nahiean ihesi eginik gauzak ez direlako konpontzen gauzei aurpegia eman behar zaielako ez karramarruen gisa ihespide erromantikuetarik alde egiteko garaia delako san franciscoren bideak ez direlako rentagarri eta saint germain de preseko liburutegietan eta kartier latineko karraketan zehar ibiliz ez delako aski hemen eta gaur egun egunean geure herriaren bibotzean erantzun serio bat eman behar diogulako...

### VI

**N**OLA diot inori esplikatuko fruituen parabola iharririk badago gernikako arbola intsektoen marmar isilak nere kalean gauez erdiharoko kale bat dirudi balkoi izkinetan giriseilu zahar batzuek argia botatzen dute harri gogor eta bihar barrenderoak eramanen dituen zakar kajen kontra haurrak ez dira aingeru heren begietan labain zorrotz eta kamutzik bada eta bestela begira ezazu vietnameko mutil koskor bat itzalpean deabruaren lurran meza nagusiaren bitartean seroraren baratzan ispilu borobilaz madarikatuko haute eskandala armatzeagatik iribar denik etezain trebeena hobeena duk egunetik egunera mitoak istoriogileen ameslarien oinharri eta bahe direnean eta gizonak zorabiarazten dituenen ez zientifikoki borroka bat gatibuen grebaz espero dezakegun haina egun burgesiak natura eta naturaren morala bortxatu nahi baditu ere edozein aldaketaren bildur denean eta mitojaleen bazka gertutzen hainbat presupuesto xahutzen dituenen ostikozko partido futbolak antzo telebisioko zenbait gauzataz eta perutxoren zorakerietaz oroitzen gara zeren mordo baten hogeitaz astoren eta ehun zaldizko motorraren indarra bai omen zedukan atzaparretako bi atzez burni gogorrena legunki zatitzen omen pulsolarien artean bildurgarria eta paregabekoa benetan farlari iaioa hortz gabeko aho zikinaz tapa zezaken elektrizidadearen mila boltio ah zer zirisartzailea huan ausarta bera bakarrik bezalako palomaresko bonbak hortzekin hamabi metro ondar petik berak urgaineratuak trigonometriaz eta astronomiaz zoologiaz eta hizkuntzetaz itsas zabalean bapore eta merkante artean jakintsuenetakoa ni ez naiz nor hemen kaderan eseritzeko luma erdi igar

## Patri Urkizu

erdi zoro erdi ergel erdi txepel erdibitu gabeko honekin ene belarriak iadanik desfinatu entzuten dutenez gero garrasi hauk zerri eta zorrien kontra altxatu nahirik baina ene eskastasunak eraginik pailazo beltzaren gisa jokatzan badute har ezazue bada lelo zoro honen zerrenda humezurtz hau bere ahulezien froga eta testigantza bezala estropadak hamabi hamabietan hasiko dira irailaren bian katxareroa txatarreroa ijitoa esnekataria arrainketaria igeltzeroa xispatzailea bonberoa hi eta koldo errosariyo eta karlota hasi zarete hemen edo han baina berdinduk hasiak zarete hiri handiko geltokiak betidanik suntsitu naute esperoan egote horrek tristatzen hainbat aurpegi triste eta ezezagun ikusteak zer arraiotara doazen jakin gabe bere mundu propioetan ezin sarturik kateak eta mugak hautsiko bailira egun erresumetan gaindi gorabehera ibiliko ginake lasai ez ez oesteko nobelagintzan bezala edo telebistaren albisteetan terrorismoa delata non eta norena den legearen babespean benetazko terrorismo alua dagitenez azeri jaunaren zerbitsupean arerioak buztana luze zedukan dolozko leize zulo xarmant batean laztanka hasi zirenean zenbait maite haudan hator nigana ene ezteetarat ene sabela senti hadin xoxolo polit kutuna isil adi maitea ezin esplikatu dezakeat sentitzen ditudan bihotz taupada eta itotzeko zorian uzten nauten mindura saminak maite haut je t'aime te quiero iloveyou baina dudarik gabe geure aldamenean ditugun prolemtarik sakonetakoa borroka nola eraman behar dugun da oinharriak aztertu behar ditugu bananbanan has gaitzen hasieratik egia da ezin dugula pontifikatu gerla borroka modu bakar bat edukiren dugunik zeren ez dago errezeta infaliblerik beraz mota berezi eta nabarmen asko izan daitezke baina bere konzienzi esnatzaile iraultzaile ukanik langile borrokaren barnean sortzen diren mugimenduetan gogor hasi baina usteltzen diren gerla modu bizi eta grina berriak erantsi behar zaizkie hil ala biziko kontua baita berritzea nahitaezkoa gauza jakina da noski ezin dugula ahanzi geure istoriomisterioa geure asaba zaharren borroka bereziak matxinadak eta zamakoladak ala ez funtsean zenbait aldaketa ttipi kontuan edukirik egoera garrantzitsuenak bere lekuan diraute zanpatzaileak zanpatzen

## Sekulorun Sekulotan

segitzen dute eta zanpatuak berdin baina egunetik egunera handitzen doaz konzienziak herستutzen doaz batasunak ahuleziak gaintzen doaz eta indarra erabili beharko dugula ere uka ezina da estrukturalisten jokoetan bezala lehen desegite kontua izaten da aztertzeke esamina egiteko puzketan hausi gero beste integratze berri batekin eraiketa konprenigarriago batez sozialismo hobeago bat antolatuz musika poliki poliki isiltzen ari da dantzari eta predikariak oro mugimendu ezinezkoetan baina bai zela galanta zerrien indarra eta gero demokrazigiristinoaren erromako agintea ene aitari ez zitzaion batere gustatzen oiloen odolez tortilik antolatzea behin katiloan odola isurarazterakoan hegaz zatzako bat pairatu zuen kaka eskapo egin nau aluita honek katilu eta guzi lurrera erori ziren adio tortilaren errebolta odola isurtzea eta zertarako ez baikenuen erreparatu norentzat ari ginen baina borrokak badu zentzu bat odolak dakarren kondar luzea su beltz eta kiskalietako gela zabalak nonnahi bota daitezkean sakeak hirutik zazpirainokoak edo eta lautik zortziraino joan daitezkean pilota biziak edo motelaz ongi jakin behar delako non dagoen ezkerria eta non eskuina edo eta bestela beste esku batenbat asmatu beharko dugulako ezkerriaren ezkerria eta eskuinaren eskuinaz erdikoaz eta erdikoezkerriaz eta erdikoeskuinaz aparte oraindik beste klasifikazio bat asmatu beharko dugulako nola konponduko dira erlategi batean jon joan zen mendira ete pinu merke baten adarretarik zintzilikatu zuten urkatze exenplar bat izan zen lurpean ehortzi zuten beste hura putanero handia baizen faxistanazionalkapitalistaren morroi etxean egunero txokolatea jaten zuena eta sintesi batean emateko hots hitz guttitan alu bat besteak espetxean dirauten bitartean goseka builaka marruka borroka ostikoka kukuka eta marrumarruketan bezala harakindegiko aretoa odol braboaz gainezka zegoen goiko mendietarik metralleten fraideak jetsi ziren ikurrina aurrera odola beltz eta grisa dario teilatupetik behera ur tantoak erortzen dira oparo xinaurrien moduan hasi ziren grisak joanetorriak ematen zumardiaren erdian gatibuak eta jauntxoan morroiak hasi ziren pelean beotibarren gatibua nork hau libratuko ertzainak berebitez olinpiadetan bezala

## Patri Urkizu

ehizlari gisa merkatu inguruan harri txintzar eta artaburuekin zaldi handien nahasteko gurpilpetua aurkitu zen irudi abstrakto gorri bat baina kantik entzunen dira entzuten ziren entzuten ditut libro ozenki kanta ferdeak arinak ogi zerutik ukatua zu zara gure pekatua bentaundiko hilketa hala zer hilketa alua traizioz ala zer bukata luzea atorretarik baomen du hirur dozena boza fin eta garbiz bildurra gaindituz laisterka korrika presaka denok batean jendea haunitz biltzen ari da erruz a zer jende pila izkin guzietarik xinhaurriak bezala sareak hausten saretan erortzen armiarmen lokarriak hausten beste lokera berri eta komunalak eraikitzen hiltzera bagaramate zer nahiago nuke hori ez duk lurrikara hau honelako gizarte pozointsuan xipiroi beltzek eta armiarmek botariko pozoin sorgintsua edanik lehenik bapo altabozaren oihua giristino ahal zara bai jauna giristino naiz jainkoari eskerrak tiroen oihartzunak menditik behera harrobiko dinamiten izua bezala bi pauso eman ondoren fabriketako sirenak itzali ziren iso iso espetxerat abiatu ziren eleizetariko kateetan konfesionarioetan has adi galdatzen nork nori zer egin egiten eginen debekatu DEBEKATUrik baita agur erregina ama errukiorra kale ertzetan baimenaren eske nigarrez zeuden eta agintariak esan zuten urrengo urtean rallye basquenavarre baten eratzeko baimena emanen zutela urrengo urtean denborak eta jainkoak hala nahi bazuten ezpainetan irrifarra solapetan lore bat itxaropena ahotan ostiaz et preces tibi domine debako nuklearra ez debako herriaren xoriontasunerako baizik pentsatua orio ondarrabi denek berdin garelako beltz xuri eta orlegi diruaren morroi eta zuhaitzak erdi mareaturik zeuden zia eta bira sar arrauna gaurko estropada geurea duk eta barka porra eta ogia eta xistorra bai santo tomasen feriya txorizua eta ogiya ostiral arratsalde hartan jende haunitz fabriketarik irtetzen hasi zen zumardi aldera goibel gogor hilun baina firmoki katu beltza eta katu xuria katu gorriaren bila katu komunaren xerkan eginikako tobera katu urkatua zintzilikatua eta obiratua zazpi gizon nituen joka inguruan xuri gorri ferde osteria kinieletan zegoek etorkizuna circulen circulen eta zer kristo xingoladun karate jakile eta barrabilen erdian emanikako ostikoa erregina

## Sekulorun Sekulotan

kuroiez jantzirik gaiztoen egarria sublimaturik prestu berebil urdin hiru ehizean alaporra kontrola pasatu eta fabriketako langileak bildu dira oihuka hasi dira urso xuria zira zu zail da hainbeste ziabira aska kaska tar sun erdiesteko suge antzo ibiltzea potrorik ez duka agian anaien odolaz eta langile eroriaren teoria eta praxis bortitza gogor hogeitalau orduetan segitu behar dugulako unerik utzi gabe memento oro hik bai merezi ditukeala atzean paluak hainbat denbora galdu baituk adio ene hilazkizoro zorabiatu hori hire armiarmen haustera ausartzen haizenean deit nazak betiko leku berean edo hobe esatera gogorrago eta pittin bat aitzinago aurkituren nauk eta entzun pozoin gaiztoetarik eta intsektoen saretarik urrun adi borrokak espero dik...

*Jaizkibelen, 1972-ko irailean.*

## **Patri Urkizu**

Philippe Sollers-ek dionez «literatura bat modernoa izateko aukeratu dituen soluzioak garaiaren beharrei erantzun behar die». Hori da kuestioa: «Sekulorun sekulotan...» ez da modernoa bere lerroen zabaleroan puntu eta koma gehiago edo gutiago duelako, gaurko munduaren esijentziaz eginga dagoelako baizik. Horrela esate baterako, oso kontuan hartzekoa da egun, aipatu beharrik ez dagoen arrazoiak direla medio zerbait esateko hitzegin daitekeen hizkuntza bakarraz mintzo zaigula. Alde honetatik, ene ustez, (eta egia ez bada merito gehiago) aukera bat eginaz urrutien heldu daitekeen arma tresna hizkuntza erabili du. (Ramon Saizarbitoria)